

DATORRENA

Nazioartea faktore bezala

GORKA ELEJABARRIETA > 3

AMA NERABEAK: Latinoamerikan
eta Karibean gora egin dute
haurdunaldi goiztiarrek > 4

2015eko urriaren 10a | IX. urtea • 437. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



RAKETISTAK OFIZIOZ ETA BIZIMOLDEZ

BADA KIROL HISTORIAREN KONTAKIZUN OFIZIALEAN TOKIRIK IZAN EZ DUEN GERTAKIZUN
GARRANTZITSU BAT: 1917tik 1980ra bitartean, ehunka emakume raketista
profesionalak izan ziren; gehienak, euskal herritarrak. > 12

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Latinoamerikan eta Karibeetan, gora

haurdunaldi goiztiarrak 04

Burundi, lur arraroen kontrola

dela-eta gatazkan 07

Emakume raketisten jarduna,

kontatu gabeko historia 12

Mendi martxa antolatu dute

Euskal Herriko erdigunera 22

Ikusmira: Biolentziaren erabilera


«zilegia» i(ra)kasten 25

«Hego haize, 'soro' haize» 27

Infraganti: Mai Egurza,

ilustratzailea 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Nazioartea faktore bezala

10 **Saioa Aginako:** Porlanezko basoak

11 **Mikel Zubimendi:** Gure errealitateen inguruko fikzio ariketatxo bat

19 **Antton Izagirre:** Loreak

19 **Andoni Egia:** «Alternatiben EHria»

20 **Beñat Gaztelumendi:** Belartza

21 **Laura Mintegi:** Atzera begiratu aurrera egiteko

24 **Dani Fano**

30 **Maria Gonzalez Gorosarri:**
Datuak ere ez dira neutralak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Nazioartearen faktore bezala

Katalunia eta Eskoziako prozesuetan nazioarteko dimentsioak berebiziko garrantzia dauka. Erresuma Batuak eta, bereziki, Espainiak nazioarteko eragileak euren proiektuak eta eskaintza unionistak indartzeko erabili dituzte. Mehatxua nagusi. Kataluniako hauteskunde plebiszitarioen aurreko asteetan Espainiako Gobernuak nazioarteko gobernu eta eragile ugariaren babesa bilatu eta kutsu propagandistikoarekin erabili du, eta, lortu ez duen zenbait kasutan, errealitatea okertuz gezurra eta beldurra zabaltzen saiatu da. Jean-Claude Juncker beraren hitzen manipulazioa adibide argia da.

Badakite mundua antolatuta dagoen eran edozein herri, independentzia aldarrikatu eta gauzatu ahal izateko, nazioarteko herrien zein erakundearen onarpen eta aitortza behar duela. Guztiena? Ez, hori ditugu Europako testuinguruan Zipre edo, bereziki, Kosovoren kasuak, besteak beste. Bi adibideok aipatuko ditut. Lehenak, Europar Batasuneko eta Nazio Batuen Erakundeko kide bilakatzea lortu du; bigarrenak, aldiz, oraindik ez, nahiz eta 108 estaturen aitortpena lortu duen dagoeneko. Agerikoa da, beraz, bi herrien estatutugintza prozesua ez zela independentzia aldarrikatu zuten egunean amaitu.

Eskoziak ez luke arazorik izango “besteen” aitortza hori eskuratzeko bidean, bere prozesua eta emaitza Erresuma Batuarekin aurrez adostu zuelako. Kanpainan Erresuma Batuak erabili zituen mehatxuak propaganda hutsa izan ziren nire ustez, independentziaren aldeko bozak gutxitzeko. Europar Batasunak eta bestelako nazioarteko erakundeek Eskoziak kide izaten jarraitzeko interesa du, zalantzarik ez daukat horretan; Eskoziak garaia iristen zer erabakiko duen beste gauza bat da.

Kataluniaren kasua ezberdina da, eta ezberdintasun horrek nazioarteko dimentsioari garrantzi handiagoa ematen dio. Espainiak Serbiarekin eta Turkiarekin parekotasun handiagoak ditu Erresuma Batuarekin baino, eta, nahiz eta bere interes ekonomikoen eta politikoen kontrako izan, pentsatzekoa da Kataluniarekiko egun duen jarrera beligerantea ez dela aldatuko ez hobetuko behin Kataluniak independentzia aldarrikatu ostean. Horrek, nazioarteko borroka diplomatikoan, espainiar

Estatuaren endroke bat ekar lezake, eta kataluniarren nazioarteko onarpen prozesua moteldu. Hala ere, kataluniar independentistek, Madriletik zabaltzen saiatu direnaren kontra, nazioarteko borroka diplomatikoan ere aurrea hartu diote espainiar Gobernuari. Hauteskunde plebiszitarioen biharamuneko espainiar eta nazioarteko komunikabide nagusien titularrak ikusi eta konparatu besterik ez dago. Hagan kokatuko Nazioarteko Zigor Auzitegiak Kosovoko kasuan erabaki eta argudiatutakoak indar handia dauka Kataluniako bide orrian, aldebakarreko erabakia ontzat hartzen baitu negoziatzeko bide guztiak saiatu eta kale egiten dutenean. Eta Kataluniakoa, prozesu demokratiko, baketsu eta parte hartzailea izatearekin batera, prozesu publikoa izan da erabat, nazioarteko komunikabide eta ikuskatzaile ugari jarraitutakoa. Maila handi batean, Espainiaren jarrera itsuak berak ekarri du prozesua nazioarteratzea.

EBren baitan gero eta gehiago dira «barne hazkundearen» inguruan iritzia eman eta erabaki eta protokoloak adostu behar direla diotenak, duela gutxi arte tabua zen eztabaida gero eta publikoagoa bilakatuz

Iñaki Sotok duela astebate zutabe honetan bertan idatzi zuen bidetik, Eskoziak eta Katalunia nazioartean jorratzen ari diren bide diplomatiko propioekin batera, gero eta gehiago dira antzeko (bere diferentzia guztiekin) egoeran dauden herriei kooperazio guneak bilatzen ari direnak, orain artean ez bezala. Eskozian eta Katalunian, zioen Sotok, asko hitz egiten da Kataluniako prozesuaren inguruan, baina baita –gehituko nuke nik– Bruselan, Berlinen, Londresen eta Europako gainontzeko hirietan ere. *Trending topic* da lagun arteko eztabaidetan, alderdi politikoen agendetan eta baita gobernu zein instituzioetako ordezkarien hartu-emanetan ere. Europar Batasunaren baitan gero eta gehiago dira “barne hazkundearen” inguruan iritzia eman eta erabaki eta protokoloak adostu behar direla diotenak, duela gutxi arte tabua zen eztabaida gero eta publikoagoa bilakatuz. •

AMA NERABEAK

Latinoamerikan eta Karibbean gora egin dute haurdunaldi goiztiarrek

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

Pasa den abuztuaren 14an, 11 urteko neskatxa bat ama izan zen Paraguain. 10 urte besterik ez zituela, aitaordeak bortxatu eta haurdun gelditu zen. Auzia argitara eman zenean, bost hilabete zeramatzan haurdun. Zalaparta handia sorrarazi zuen herrialdean, baita nazioartean ere. Emakumeen eskubideen defentsan lan egiten duten hainbat taldek eta Amnesty International bezalako gobernu kanpoko erakundeek abortu terapeutikoa eskatu zuten, neskatoaren osasuna eta bizitza bera arriskuan zeudelako.

Giza Eskubideen Amerikarteko Auzitegiak kautelazko neurriak ezartzea agindu zion Paraguaiiko Estatuari, haurraren adinarengatik arrisku handiko haurdunaldia baitzen. Eskaera horiek guztiak, baina, ezerezean gelditu ziren: *Mainumby* izen goitia ipini zioten neskatxak bere umetxoa izan zuen Asuncion hiriburuko ospitale batean. Zesarea bidez jaio zen.

Nazio Batuek, Cladem sare feministak eta gobernu kanpoko erakunde ugari Gobernuari jaioberriaren, amaren eta amonaren babesa bere gain hartzeko exijitu zioten. Era berean, agintariek izandako jarrera gogor kritikatu zuten, *Mainumby* umea izatera behartzeagatik. Hori krudelkeria hutsa izan zela nabarmendu zuten. Batetik, *Mainumby*ren osasuna arriskuan zegoelako, eta, bestetik, haurdunaldia bortxaketa baten ondorioz zelako. Horrez gain, *Mainumby*ren ama kartzelatu izana gogor gaitzetsi zuten.

Azkenean, *Mainumby*ren ama aske gelditzea behintzat lortu zuten. Alaba behar bezala babestu zuela aski frogatu zuela argudiatu zuten. Paraguaiiko babes sistemak huts egin zuela salatu zuen *Mainumby*ren amak, izan ere, ez medikuek ezta Fiskaltzak ere ez zuten aintzat hartu senarrak alaba bortxatu zuela salatu zuenean. *Mainumby* haurdun zela haurdunaldiko hogeigarren astean jakin zuten. Ordurako, beranduegi zen. 10 urte eta 34 kiloko pisua besterik ez zituen.

Paraguain 14 urte baino gutxiagoko 600 neskato ama bihurtzen dira urtero. Haurdunaldi gehienak sexu indarkeriaren ondorio dira, baina abortua amaren bizitza arriskuan denean soilik baimentzen da. Fenomenoa zabalagoa da, Unicefek eta Plan Internacional gobernu kanpoko erakundeak egindako ikerketaren arabera.

Abortua Paraguain debekatu ta dago. Kartzela zigorra bost urtekoa izan daiteke. Salbuespen bakarra amak hiltzeko arriskua duelako medikuek abortua gomendatzean egiten da. Gobernuaren arabera, urtariletik ekainera 421 ume eta nerabek jasan zituzten sexu abusuak Paraguain. 2014an, 10 eta 14 urte bitarteko 684 neskatxa eta 15 eta 19 urte arteko 20.009 nera-

be izan ziren ama. Afrika Beltza-ren ondotik, Latinoamerika eta Karibea dira haur ugalkortasun tasa handienak dituzten eskualdeak Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren (Unicef) eta Plan Internacional gobernu kanpoko erakundearen ikerketa baten arabera. Haurdunaldien heren bat 18 urte bete gabeko neskei dagozkie. Eta horietatik ia %20k 15 urte azpitik dituzte.

Haurdunaldi goiztiarrak oso ohikoak dira Latinoamerika eta Karibbean. THINKSTOCK

Osasunaren Mundu Erakundearen definizioaren arabera, 10 eta 19 urte bitartekoak dira nerabeak eta egun 1.300 milioi daude munduan. Egutero 20.000 nerabek erditzen dute munduan eta horietatik 200 hil egiten dira haurdunaldiaren eraginez. Nerabezaroan, haurdunaldiaren ondorioz hiltzeko arriskua emakume helduena baino bi aldiz handiagoa da.

Mundu mailan azken 30 urteotan nerabeen arteko haurdunaldi tasa jaitsi den arren, Latinoamerikan eta Karibbean gora egin du. Eskualdean, hiru gaztetik bat 20 urte bete baino lehen bihurtzen dira ama. Nikaraguan, %28; Hondurasen, %26; Dominikar Errepublikan, %25; Guatemala eta El Salvadorren, %24; Ekuadorren, %21; eta Bolivian eta Kolonbian, %20.

BIOLENTZIA ETA POBREZIA

Borondatez kontra haurdun gelditu izanaren arrazoiak askota-



Karibeko eta Latinoamerikako herrialde gehienetan –Kuba, Guyana, Puerto Rico eta Mexiko salbu– borondatezko abortua debekatuta edo oso mugatuta dago

rikoak izan daitezkeen arren, laburbilduz, honakoak dira: genero indarkeria (biolentzia fisikoa, sinbolikoa, ekonomikoa eta psikologikoa, esaterako); genero desberdintasuna; giza eskubideak egikaritzeko oztopoak; sexu biolentzia eta indarkeria; pobrezia; heziketa sexuala eta familia plangintza eragozten duten gobernu politikak; ugalketari buruzko informazio eza eta inbertsio falta.

SEXUA, TABU ORAINDIK

Plan Internacional eta Unicefen ikerketaren arabera, sexualitatea oraindik orain tabu da Karibeko eta Latinoamerikako hainbat gizartetan. Isiltasunean gordetzen den auzia da, eta, ondorioz, belaunaldiz belaunaldi igorritako mitoak nagusitzen dira; hori horrela, sexuari loturiko emozioak txarrak bailiran ikusten dira. Horrek sexualitateari buruz modu irekian hitz egitea zailtzen du. Horrekin batera, amatasuna eta aitatasuna adinaren gainera dauden balore sozialak dira, emakumeari ama izatearen rola egokitu baitzaio. Amatasuna izatearen funts gisa ikusten da. Ikuspuntu horrek gainontzeko eskubideak eta norberak dituen egitasmoak bigarren mailan uzten ditu. Haurdunaldiaren eta jaioko den umearen ardura osoa, gainera, emakumeak soilik hartu ohi du bere gain, baita etxeko lanak ere. Nerabeak ez dira eskubideen subjektu gisa hartzen.

HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du nerabeen haurdunaldiak murrizteko ahaleginean. Perun, esaterako, 15 eta 19 urte arteko ama nerabeen %56,7k ez dute inolako hezkuntza formalik jaso; %34,9k Lehen Hezkuntza bakarrik egin dute, eta, %11,6k, Bigarren Hezkuntza.

Haurdun gelditzeko arriskua nabarmen murrizten da heziketa prozesua luzatu ahala. Eskolara joateak nolabaiteko aitortza ematen die neskei familiaren eta komunitatearen baitan, norberaren bizitzari dagozkion erabakiak autonomoki hartzeko gaitasun handiagotuz.

Nerabeen artean abortua ez da segurua izan ohi. Batetik, haurdun daudela oso berandu jabetzen direlako, eta, bestetik, sarri sasi-medikuengana jotzen dutelako beldurragatik



Ume jaio berri bat, bere zaintzailearen besotan. THINKSTOCK

20.000

Garapen bidean diren herrialdeetan 18 urte baino gutxiagoko 20.000 emakumek erditzen dute egunero. Guztira 70.000 nerabe hiltzen dira urtero haurdunaldiarekin eta erditzearekin loturiko arrazoiengatik.

670.000

Urtero 15 eta 19 urteko 670.000 nerabek abortatzen dute Latinoamerikan baldintza ez ziurretan.

146

Munduko 146 herrialdetan dago baimenduta 18 urte baino gutxiagoko nesken ezkontza. 52 herrialdetan, 15 urte baino gutxiagokoak ere ezkon daitezke gurasoen baimenarekin.

150 miloi

Munduan 150 milioi emakume eta nerabek jasaten dituzte sexu abusuak eta biolentzia sexuala, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera. Gehienetan, bikotekideak, gertukoak edota gurasoak dira abusuon erantzuleak.



Guatemalako hiriburutik 15 kilometrora den Santa Catarina Pinula herriko eskolako ikasleak.
Johan ORDOÑEZ | AFP

NERABEAK HAURDUN GERA EZ DAITEZEN GOMENDIOAK

Ama goiztiarra izateak eskola-tze aldia gutxitzen du, eta, on-dorioz, lan egiteko aukerak, ba-tez ere familia behartsuetan. Hala, etenik gabeko ziklo batean murgiltzen dira bai neskatoak bai haien seme-alabak.

TRADIZIOA ETA MODERNOTASUNA

Guatemalan eta Dominikar Errepublikan tradizioak eta mo-dernotasunak talka egiten dute. Landa guneeetatik hiriguneetara aldaketa nabaria ematen da. Dominikar Errepublikako neka-zaritzza guneeetan, nerabeak adi-neko gizonekin elkartzea ondo ikusita dago. Hiriguneetan, al-diz, pentsamoldea bestelakoa da; unibertsitatea bukatu baino lehen ez ezkontzea edo gizon-ekin ez elkartzea aholkatzen die-gazteei eskolan.

Guatemalan, K'anpur eta Co-ban bezalako komunitateetako biztanle gehienak maiak dira. Nerabeek tradizioaren –jatorriz-ko kultur erreferentzien– eta modernotasunaren –eskolan, osasun zerbitzuetan eta kalee-tan jasotzen duten informazioa-ren– arteko borroka betean bizi dira. Bestetik, gurasoen eta se-me-alaben arteko komunikazio-an gizartean txertatutako rolak errepikatu ohi dira. Oro har, bi belaunaldien arteko komunika-zioa kaskarra da, nerabeen iritzi eta sentimenduak ez dituzte aintzat hartzen gurasoek eta in-teres eza gailentzen da.

Bestalde, nerabeak sexu gaie-tan hezteko ardura beste ba-tzuengan utzi ohi dute sarri gu-rasoek. Askoren ustez, gainera, sexualitate klaseak kaltegarrik dira, sexu harremanak izatera bultzatzen baitituzte gaztetxo-ak. Hala dio, esaterako, Hondu-rasko errektore batek. Ikasleei ez diete sexuari buruz hitz egiten gurasoen hezkuntza maila txi-kiarengatik eta gaia tabua dela-ko beraientzat.

EKIMEN POSITIBOAK

Nikaraguak, Argentinak, Kolon-biak eta Txilek fenomeno lan-tzeko hainbat ekimen martxan ipini dituzte. Unicefek eta Plan Internacional gobernuz kanpo-ko erakundeak «jardute positi-boaren» adibide gisa aipatu di-tuzte herrialdeok.

Nikaraguan, 43 herritan Nera-bezaroaren eta Gazteriarren Udal Etxeak osatu dituzte. Horietan, nerabeak beraiek dira protago-

nista. Osasun sexualari eta ugal-ketari buruzko informazioa ja-sotzen dute. Eta beraien adineko beste nerabe batzuekin lan egi-ten dute jasotako formakuntza trukatzuz. Nerabeen bizipenetan oinarritutako programak emai-tza onak lortu ditu orain arte.

Argentinari dagokionez, Ra-mon Sarda ospitaleak 1988an ama diren nerabeentzako abian ipinitako programa saritu dute Osasunaren Erakunde Paname-rikarrak eta Osasun Ministerio-ak. Jakintza-alor arteko ikuspun-tu batetik abiatuta, 16 urterekin edo gutxiagorekin ama izan di-renei eta euren seme-alabei hi-ru urteko jarraipena egiten die-te, batez ere beste haurdunaldi bat saihesteko. Programaren oi-narriak nerabeak aurreiritzirik gabe entzutea, laguntzea eta aholkatzea dira.

Kolonbian, Duitamako osasun etxean, 600 bat neskek doako osasun zerbitzua jasotzen dute,

osasun sexuala eta psikoterapia barne. Kolonbian bertan, Fonti-boneko Udalak programa bitxi bat ipini du martxan bertako os-pitalearekin elkarlanean. “Ume bat? Ondo pentsatu!” lelopean, 13 urtetik 19ra bitarteko ikasleei robotak diren jaioberriak ema-ten dizkiete asteburuan etxean zaintzeko. «Hasieran, pozez zo-ratzen hartzen dute panpina, benetako umeak dirudite-eta. Baina segituan ohartzen dira zer-nolako lana ematen duten, izan ere, jaio berriak bailiran negar egiten dute, pardela alda-tu behar zaie, jaten eman, bai-natu... Ume batek ordura arteko euren dinamika guztia erabat aldatzen duela ikusten dute. As-telehen goizean begi-zuloekin iristen dira gelara», dio Nataly Ardila ospitaleko psikologoak. Programaren baitan bederatzi hilabeteko haurdunaldi bati da-gokion «sabela» ere jartzen die-te neska eta mutilei. Hamabost minutuz izan behar dute soine-an, haurdun izatea zer den ikas-teko. Abortuari, sexu biolen-tziari eta gaixotasunei buruzko informazioa ere jasotzen dute.

Txilen, 2000. urtean ama ne-rabeak babesteko legea onartu zuten. Legedi horren arabera, Estatuari dagokio ama diren ne-rabeen eskolatzea bermatzea, ikasten jarraitu ahal izateko erraztasunak ematea eta ikaste-txeen aldetik diskriminaziorik ez egotea ziurtatzea.

Amatasuna nerabezaroan ez da soilik arazo medikua, gizarte mailako arazoa ere bada. Izan ere, pobreziarekin, hezkuntza gabeziarekin eta giza eskubideen urraketaekin oso lotuta dago

Latinoamerikako Obstetrizia eta Ginekologia Federazioaren arabera, 15 urte baino lehen gertatzen diren haurdunaldien gaineko datu erregistro zehatzik ez dago

- 1.- 10 eta 14 urteko neskatoak kontuan hartu behar dira. Haiei zuzendutako prebentzio kanpainak egin behar dira nerabezarotik heldutasunerako bidean beharrezko informazioa eta laguntza psikoafektiboa jaso dezaten. Ume eta nerabeen artean izaten diren haurdunaldiak argitara eman behar dira fenomeno bere osotasunean aztertu eta politika publiko eraginkorrak adosteko.
- 2.- 18 urte baino gutxiago nesken behartutako ezkontza eta bat egiteak debekatu behar dira. Mundu mailan 67 milioi emakume ezkontzen dira 18 urte bete baino lehen, euren garapen fisiko eta psikikoa bukatu gabe.
- 3.- Haurdun gelditu izanagatik ez dira neskak errudun sentiarazi behar. Horrelako ekinbideak eta jarrerak alde batera uztea beharrezkoa da.
- 4.- Neskatoen giza eskubideei buruz ari gara, ez da osasun arazo soil. Nerabeei hezkuntza, segurtasun eta askatasun eskubideak bermatu eta errespetatu behar zaizkie.
- 5.- Gizonak aintzat hartu eta arazoaren nahiz konponbidearen parte bihurtu behar dira.
- 6.- Nesken hezkuntza formala bermatu egin behar da.
- 7.- Sexuari buruzko informazio kanpainak sustatu behar dira, ez bakarrik haurdunaldiak saihesteko, baita gaixotasunak prebenitzeko ere.
- 8.- Giza eskubideen errespetua sustatu behar da.

GAI BERRIEN GERRAK

Lur arraroen merkatuaren kontrolari egotzi dio oposizioak Burundiko gatazka

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Burundiko gatazka politikoa ondoko herrialdeetara zabaldu daitekeen gerra bihur daiteke, NBEko adituen arabera. Nkurunziza presidenteak bereari eusten dio, nahiz eta oso bakartuta dagoen. Oposiziokoek diote Txinaren sostengua duela, lur arraroak ustiatzeko sinatutako kontratuei esker. Elkarriketa oraindik posible delakoan daude begiraleak.

Pablo de Greiff NBE Nazio Batuen Erakundeko adituak Giza Eskubideen Kontseiluari orain aste batzuk adierazi zionez, Burundiko gatazka politikoa era egokian konpontzen ez bada, Afrikako Aintzira Handien eskualdean sekulako gerra jar daiteke abian edozein une-


tan, «eta inork ez daki zein proportzio izango dituen».

Afrikako eremu hartan genozidioa zer den beste inon baino hobeto dakite. Ruanda askotan lotzen dugu genozidio hitzarekin, 1994an hilabete gutxi batzuetan milioi bat pertsona inguru hil baitzituzten. Ondoan dagoen Kongoko Errepublika Demokratikoan zortzi milioi

Hiriburuko Citiboke
auzoan maiatzean izan
ziren istiluen eraginez
zulo batean ezkutatutako
gaztea, militarrei
laguntza eskatzen.
Aymeric VINCENOT | AFP

pertsona inguru hil dituzte geroztik, batez ere ekialdeko eskualdeetan, baina izugarrikeria hogei urtez luzatu denez (eta oraindik ez du amaitzeko sintomarik eskaintzen), ez zaio genozidio deitzen. Urtean 400.000 hildako, egunean 1.000 hilketatik gora... baina ez diogu genozidio esaten. Aste honetan bertan esan dute adituek Kongoko Errepublika Demokratikoko herritarren %80a erabateko pobrezian bizi dela –munduko daturik okerrinak ditu herrialdeak–.

Eta Burundin bertan ere 300.000 herritar hil zituzten hamahiru urteko iraupena izan zuen gerra zibilean. Urte batzuk pasa dira eta teorian gatazka hura konpondu zen, baina herritar askoren buruetan bizi-bizirik dirau gudak eta 200.000 pertsona inguruk herrialdea utzi eta ihes egitea erabaki dute azken hilabeteotan, krisi politikoa berriz gerra bihur daiteke-





info+

- **Lur arraroei eta horien erabilerei buruzko informazioa, ingelesez:**
geology.com/articles/rare-earth-elements/
- **Lur arrarorik gabe iman iraunkorrak garatzeko europar proiektua, ingelesez:**
www.nanopyme-project.eu/index.php
- **Worcester Polytechnic Institutek garatu duen sistemari buruzko informazioa, ingelesez:**
www.wpi.edu/news/20156/engines.html

lakoan. Datu horiek kontuan hartuta, ez dirudi Pablo de Greiffek esandakoa albo batera uzteko moduko diagnostikoa denik.

Gainera, joan den asteazkenean, Burundiko egungo agintariak Nyaruhirira izeneko Ruandako diplomazialaria kanporatu zuten, herrialdeko egoera nahasteko asmoa leporatuta. Ruandak Bujumburan duen Enbaxadan zegoen diplomazialaria. Burundik egotzi dio Ruandari oposizioko indarrak bere lurraldean gaitzea, gero Pierre Nkurunzizaren Gobernuaren aurka aritzeko, Willy Nyamitwe Atzerri ministroak adierazi berri duenez.

Burundiko krisi politikoaren azterketak gertatzen ari dena ulertzen lagun dezake. Afrikako herrialde askotan tankerako zer-bait gertatzen ari da: Konstituzioak agintaldi kopurua mugatu egiten du, baina agintariak bestelako asmoak ditu eta ahal duen guztia egiten du karguan jarraitzeko. Herritarrek ez dute hori onartzen, ordea, eta beren bizitza arriskuan ipinita manifestazioak eta era guztietako

protestak egiten dituzte. Protesta horiek arrakastatsu izaten direnean, ondoko herrialdetan eredu bera kopiazen saiatzen dira.

BAKARTUTAKO AGINTARIA

Manifestariak oposizioaren eta gizarte zibilaren babesa izan dute Burundin, Mendebaldeko potentzia nagusiek Pierre Nkurunziza presidenteari esan diote kargua utzi egin behar duela, herrialde osoan hedatuta dagoen Eliza katolikoak ere bat egin du agintariaren aurkakoein, baina bereari eusten dio Bujumburako diktadoreak. Oposiziorik

Joan den asteazkenean Burundiko egungo agintariak Nyaruhirira izeneko Ruandako diplomazialaria kanporatu zuten, herrialdeko egoera nahasteko asmoa leporatuta

Fides Vatikanoko berri agentziak egin duen analisiaren arabera, Burundik dituen lur arraroak dira Pierre Nkurunziza presidentearen egoskorkeriaren iturburu

Motor elektrikoek eskariak mundu osoan gora egingo duelakoan daude adituak, eta horiek egiteko gaur egun beharrezkoak dira lur arraroak. THINKSTOCK

gabeko hauteskundeak egin zituen uztailan, nahiz eta ondoko herrialdeetako buruek ere hirugarren agintaldian karguan jarraitzea ez dutela onartzen esan dioten. Bere aliatu izandako militarrek zein politikari askok ere bazterrean utzi dute, baina berak ez du jarrera aldatzen. Estatu kolpe ahalegin bat ere egin zioten, alfer-alferrik ordea. Zergatik egoskorkeria hori?

Fides Vatikanoko berri agentziak egin duen analisiaren arabera, Burundik dituen lur arraroak dira presidentearen egoskorkeriaren iturburu. Horrek esplikatu luke presidentearen karguan jarraitzeko asmoa, eta gatazka elkarrizketaren bitartez konpontzeko ahalegin guztiek porrot egitea.

NKURUNZIZAREN EZEZKOA

Esaterako, irailaren 20an gozain katolikoek elkarrizketa prozesu bat abian jartzea proposatu zuten, herrialdean diren eragile guztiek esku har dezaten eta, hortik abiatuta, konponbide jasangarri batera iristeko.

Nkurunzizak baiezkoren itxurako ezezkoa eman zien:

onartzen du elkarrizketa, baina ez oposiziokoek esku hartzea.

Handik egun batzuetara plazaratu zuen Fidesek bere analisia, izenik eman nahi ez duten iturrietan oinarritutakoa, Bujumbura hiriburuan egunero izaten diren borroketatik abiatuz: «Aurreko gauean eraildako pertsonen gorpuak izaten dira egunero Bujumburako kaleetan. Badakigu atxilotuak torturatu egiten dituztela. Beste aldetik, Gobernua herritarrek erosten saiatzen ari da. Hori gertatzen ari da presidentek diru asko duelako bere esku, Txinako konpainiekin lur arraroak ustiatzeko sinatu dituen meatzaritza kontratuei esker».

«AEBek eta Europar Batasunak Nkurunzizaren hirugarren agintaldiak Arushako bake akordioak eta Burundiko Konstituzioa bortxatu izana gaitzesten duten bitartean, Mendebaldearen, batez ere AEBen, eta Txinaren arteko zeharkako borroka ikusten dugu. Badirudi Pekinek presidentea sostengatzen jarraitzen duela. Azpian dauden arrazoietakoa bat lur arraroen kontrola da», Fidesen arabera.

LUR ARRAROAK BIRZIKLATU NAHI DITU MENDEBALDEAK, TXINAREKIKO MENPEKOTASUNIK EZ IZATEKO

Azken ikerketen arabera, Burundiko lur edo metal arraroak oso onak dira, %54,33ko kontzentrazioa baitaukate, beste herrialdeetakoek baino askoz hobea. Txinak bere nagusitasunari eutsi nahiko lioke, irakurketa horren arabera, eta horregatik beste herrialdeetako erreserbak bereganatzen saiatzen ari da.

LANGILEAK ETA KUTSADURA

«Zergatik Txinaren nagusitasun hori?», galdetzen genuen GAUR8n orain lau urte: «Batez ere, AEBak, Kanada eta Australia bezalako herrialdeek bere garaian meategiak ixtea erabaki zutelako, alde batetik ekoizpena oso garesti ateratzen zelako, eta, bestetik, sekulako kutsadura eragiten zutelako. Gainera, metal arraroak erradioaktiboak dira, eta horrek langileen osasunari sekulako kaltea eragiten dio. Gauzak horrela, denbora askoan estatu horiek ados egon dira Txinak nagusitasuna izatearekin, baina egoera aldatu egin da –salneurriak gora egin du eta negozio egiteko aukerak ere bai– eta AEBek Kaliforniako Mountain Paszeko meategia berriaz lanean jartzea pentsatu dute. Tankerako proiektuak jarriko dituzte abian Kanadan, Australian, Malaysian, Groenlandian... eta Afganistanen, estatubatuar okupatzaileek metal arraro asko aurkitu baitute herrialdeko hegodean», idatzi genuen 2011ko udazkenean.

Beraz, Burundi herri pobretua potentzia nagusien arteko borrokan biktima bihurtu dute. Dagoeneko Gobernuaren aurka hiru talde armatu dituzte bertan, eta kontuan hartu behar da ondoko herrialdeetan ere aurkari ugari dituela presidentek. Gainera, bazter haietan armak lortzea oso erraza da egun. Louis-Marie Nindorera justizia trantsizionalean adituak Jeuna Afrique webguneari esan dienez, oraindik posible da Burundiko gerra zibila saihestea, eragile guztiek gogoan baitute aurrekoa, eta ez baitute puntu hartara itzuli nahi. Baina negoziazio mahai batean guztiak eser daitezen, nazioarteko presioa ezinbestekotzat jotzen du.

Lur arraroen merkatuan Txina da potentzia nagusia, beste guztiei aurrea hartu diena. Datozen urteotan ikaragarri haziko den merkatua delakoan, gainerako potentziek ere neurriak hartzen hasi dira beren burua behar bezala kokatzeko. AEBetako Armadak ordaindutako ikerketei esker, laborategiek gai horren %80 birziklatzea lortu dute. Europar Batasunak ordaindutako ikerketek, berriz, zenbait produktu egiteko (bazter guztietan dauden imanak, esaterako) material berriak sortu nahi dituzte, lur arraroak saihesteko. Txinarekiko menpekotasuna gainditu nahi dute, gehiegi hazi aurretik.

Lur arraro (edo metal arraroak) deitzen zaio hamabost lantanoideek, eskandioak eta itrioak osatutako multzoari, Wikipediaren arabera: «Oxidoei deitzeko modu zaharkitua da 'lur' terminoa; elementu horiek aurkitu zirenean, XIX. mendearen hasieran, orduko *lingua franca* zen frantsesezko *terre* hitzaren itzulpena da. 'Arraro' deitu zitzairen horietako zenbait oso urriak zirela uste izan zelako».

Berrehun urte pasa eta gero badakigu «lur arraro» haiek «oxido arruntak»

direla: «elementu hauek, izatez, aski arruntak dira Lurrazalean (oso ezegonkorra den prometioa salbu)». Gainera, gauza askotarako erabiltzen dira: ordenagailuak, DVDak, bateriak eta telefono mugikorrek egiteko, esaterako. Txina da ekoizle nagusia, merkatuaren %97 ingururekin, eta munduko erreserben %40 inguru ditu. Ez da harritzekoa, Deng Xiaoping presidentek berak 1992an baliabide horien garrantzi estrategikoa nabarmendu baitzuen: «Ekialde Hurbilak petrolioa dauka; Txinak, lur arraroak».

Iazko udaberrian, WPI laborategiak 7 milioi dolarreko diru laguntza jaso zuen metodo metalurgiko berriak eta aleazio arinak garatzeko. AEBetako Armadak emandako diruaren helburua ibilgailu arinago eta eraginkorrak egitea zen; iraupen handiagoko tankeak eta kamioiak. Txinatik kanpo hartutako lurretatik metal arraroak ateratzeko metodoen bila ari zirela, ikerlariak konturatu ziren Asiako herrialdeari erositako lur arraroak birziklatzeko erabil zitekeela teknika berria, AEBen Txinarekiko menpekotasuna murrizteko. Begiraleek diote garrantzitsua auto

elektrikoak ekoizteko hain garrantzitsua den gaia birziklatzea posible dela frogatu dutela. WPI laborategiak motor elektriko bat egiteko beharrezkoak diren lur arraroen %80 birziklatzeko gauza den metodo bat garatu du.

Motor elektrikoak ekoizteko lur arraroak lortzeak ez du oraindik lan handirik ematen, baina adituek diote teknologia garbiek gora egiten dutenean eta horien inguruko kontsumoa hazten denean egoera aldatu egingo dela. Orduan sekulako garrantzia izango du material horiek birziklatzeko gaitasunak. WPIkoek autoak egiteko erabiltzen diren materialetatik lur arraroak bereizteko sistema garatu dute. Sistema eraginkorra eta jasangarria dela diote egileek. Chevrolet Spark elektriko batekin egin zuten proba: motorra desegin, puskatu pieza guztiak eta txiki-txiki egin. Lur arraroak ateratzeko bi etapako prozesu kimiko bat erabili zuten. Altxairua ere berreskuratu zuten. Sortzaileek diote auto elektrikoekin funtzionatzen duen moduan, sistema bera turbina eolikoak, erradiografiak, eskanerrak eta beste produktu asko birziklatzeko ere erabil daitekeela.



Txinak mundu osoko lur arraroen %95 edo gehiago ekoizten ditu. GAUR8



Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Porlanezko basoak

Natura eta gainontzeko bizitza formekin dugun konexio zentzua, «biofilia» izenarekin ezagutakoa, haurrengan argi eta garbi ikus daitekeen ezaugarria da. Haurtzarotik liluratuta sentitzen gara sua begiratzekoan, urarekin jolastean edota igelen korroak entzutean. Fenomeno horiek ez gaituzte aiherga uzten, saihesten zaila zaigun erakarpena eragiten dute gudan. Bizirik dagoenarekin konexioa bilatzen dugu etengabe eta hori berezkoa dugu, jaiotzatikoa alegia, gure biziraupena bermatuta egon dadin. Hala ere, modernotzat izendatzen dugun gure mundu honetan, gehienok porlanezko basoetan mugitzen gara, ontziraturako janariarekin elikatzen gara eta zuntz optiko bidez komunikatzen gara. Non utzi dugu jaiotzez berezko duguna? Bizirik dagoenarekiko harremana, alegia?

Gizarte material eta kapitalistan dena objektu bihurtu dugu; planeta eta bertan bizi diren izaki bizidunak, gizakiak barne, kezka gabe erabiltzen ditugu, bizitzaren balioa eskaintzen diegu objektuei. Munduaren gaur egungo ikuskerak, gure nahietarako tresna eta jabetza lez, gizakia eta bere baitan baita haurra bera ere ikusmolde horien pean tratatzen du. Gizakiok Lurraren arpilatzaile izatearen mezu argia bidaltzen diegu gure ondorengoei, haurrei alegia, Lurraren zaintzaile eta aldi baterako administratzaile garen mezua igorri beharrean. Haurrak naturatik baztertzen ari gara, eta, horrekin batera, baita bertan garatu eta haztearen ondorio onuragarrietatik ere.

Osasuntsu gara daitezen haurrek mugitzea, toki irekietan jolastea eta landare, animalia eta beste haurrekin sarriago kontaktuan izatea beharrezko dute. Egun, ordea, kalera ateratzeko autonomia galdu dute haur gehienek hirietan bizi izatearen ondorioz, eta ordu dezente igarotzen dituzte eserita edo lau pareten artean. Horrez gain, haurrei jolasteko eskaintzen zaizkien tokiak gero eta pribatuagoak dira: merkataritza gunek eta jolas parkeak kasu. Leku dibertigarri eta entretenigarriak izan daitezkeenak, baina inolaz ere ez dituztenak toki irekiek eta zabalek eskaintzen dituzten jolas librerako aukerak ordezkaten.

Naturan eta eremu zabaletan jolastean handiagoa den «mundu» baten zati dira haurrak, eta horrek beraien buruengan konfiantza lantzen laguntzen die. Aldi berean, jolas libreak eta inguru naturalak irudimena lantzen bultzatzen dute, jolas berriak asmatzea zein kooperatiboki jolastea sustatzen baitute. Jolasaren bitartez haurrek gaitasun fisiko zein mentalak lantzen dituzte, beraiek baino handiagoa den planeta baten zati direla jabetzera helduz.

Bestalde, zenbait hipotesik aipatzen dute gaixotasun ugariaren iturburua naturarekin kontaktu falta izatea izan daitekeela. Horren defendatzaileetako bat Richard Louv AEBetako kazetaria da, «natura urritasun» terminoa sortu duena. Bere ustez, estresa, TDAH (arreta-falta eta hiperaktibitatea), antsietatea eta depresioa bezalako gaitzak naturarekiko kontaktu faltak sor ditzake. Naturarekin kontaktuan bizitzen diren funtsezko esperientziak –elurrarekin jolastea, zapaburuen transformazioa ikustea edota putzuetan salto egitea– bigarren mailako esperientzien-gandik ordezkatu ditugu, normalean norabide bakarrekoak izaten direnak –gehienetan ikus-entzunezkoetatik eta te-

lebista pantailetatik etortzen dira–. Zenbait ikerketak frogatu du pantaila bati begira den norbaiten entzefalograma estimulazio sentsorial gabeko pertsona batena dela. Haurrak naturan existitzen ez den estimulu mota batera ohitzen ari gara gaur egun. Adibidez, bideo jokoetan dena oso azkar doa; bizitza errealean, ordea, pertsonen arteko harremanak geldoagoak dira, eta, kolore eta soinuak, suabeagoak.

Gure artean ezaguna da «gure haurrak etorkizuneko emakume eta gizonak izango dira» esaldia. Beraiek jarraituko dute gizartea eraikitzen, balioz hornitzen. Baina naturarekin kontaktuan izateak garapen osasungarri batentzat dituen onurak murrizten ari dira gure gizartean, garapenari buruz bestelako ikuspegia dutelako. Jakinda naturarekin kontaktua izatea ezinbestekoa dela haur eta helduen osasun emozional eta fisikoa bermatzeko, nola lehengoratu natura eta gizakiaren arteko lokarria? •



Inguru naturalak irudimena lantzen bultzatzen ditu haurrak.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Gure errealitateen inguruko fikzio ariketatxo bat

Nik uste baietz, irlandarrek *Tiocfaidh ár lá* beren eguna iritsiko dela seguru dioten legez, iritsiko dela Euskal Herrian eta munduan bizi dugun garai hau perspektibaz ezaugarritzeko eguna. Patxadaz, bizarra egitean, gizon idealaren oreka natural horretan, pentsatzen jarri naiz alegiazko egun hori iristean nola ikusiko ditugun gauzak. Eta uste dut sorpresa hartuko dugula.

Atzera begiratu eta ohartuko baikara nola albisteek historia ordezkatu zuten, arazoa soluzioa baino errentagarragoa zela politikoki. Kostata baina hartu geniola neurria, moldatu ginela garaira. Moldatu ez zirenak egon baziren ere, oro har, moldatzeko ezina ia ez zela bereizi moldatzeko gaitasunaz. “Aldaketaren alde” eta “aldatzeko prest” ez zirela sinonimo, txiki-munduen kontzentrazio-esparru dispersatuetan eragitea nahiago zutela batzuek: Kataluniakoa merke mimetizatuz “euskal CUP” baten fan nerabe eginda; lau esloganekin errealitatea euren gustura pintatu eta irudikatuta bertan gozo; Facebooken iraultza soziala erre kreatuz...

Ongi pentsatuta, ez zela hain harritzekoa ere. Evaristo handiak aspaldi kantatzen zuen bezala, ontziek beren produktu propioak asmatu eta ontzietatik kanpo produkturik ez egoteko modua garatu zela akordatuko baikara. Nola gure bazter eta paisaiak pakete turistiko bilakatu eta gure iturri eta iturburuek botila forma hartu zuten.

Izanak aldatzeko izenak aldatu zirela, gauzek berek zer ziren ahaztu zezaten. *Makarra-makarra*, ezberdintasun soziala “meritu” eta euskal gazteria “koldar” deitzen zituela Adegiko buruak; Espainiako nazio forala eta hari borondatez baturikoa proposatu zutela jeltxideek. Munduan gerra zibil kontrolgabeak “interbentzio humanitario” eta gerra zibil arinduak “demokrazia” deitu zirela. Gerrari bake deitu nahi izan ziotela, gerra bera amaigabe izan zedin. Sufrimendu asko eta gero erditu zela garai hura, eta *malaletxez* komentatuko dugula, sufrimendua entretenigarri egiteko bideak azkar asmatu zizkigutela. Sekula ez zirela lege unibertsalak hain zigorgabe urratu eta hain selektiboki aplikatu. Hain laudatua zen «zuzenbidearen nagusitasuna» ilegaltasunarekin elkarbizitza trankil betean zebilela.

Denborarekin, eta denbora faltarekin, obsesionatu gine-la. Eta denetan krimen arrunt eta legitimoena zela ahaztu-

ta, ez gurela asmatu munstro hori akabatzen. Ilusio olatua altxatu zela, bai, tsunamia ere deitu zutela, baina, gero, olatuari eustea oso nekagarria zela ohartu ginenerako, itsasoak hondarreratzen dituen olatu guztiekin bezala, olatua pasatu zitzaigula. Eta etsipen puntu batez bizi gurela hain naturala zen egoera hura. Esperantzari nolabaiteko errenuntzia eginez emigratu zutenak ere izan zirela: batzuk kanpora, diru pixka bat irabaziz esperantza irabaziko zutelakoan; besteak barrura, antidepresibo bezain humano ziren barne erresumetarantz; eta beste batzuk, semaforoen argiak aldatzen diren legez, barrura eta kanpora ibili zirela. Nonbait, hainbesteko beldur ematen zuen esperantzak, ezen esperantza bera bere buruarekin beldurtu eta nahasmenaren bidetik erotu zela baitzirudien.

Ongizatea gutxi batzuen luxuan eta gehiengo handien miseriako ondorez oinarritzea ezin zela normaltasun deitu uste zuela gehiengoak eta normaltasun haren aurre-

Kataluniakoa mimetizatuz «euskal CUP» baten fan nerabe eginda, lau esloganekin errealitatea pintatu eta irudikatuta bertan gozo, Facebooken iraultza erre kreatuz...

an matxinatuak hiru estrategiaren arabera banatu zirela: zegoena hobetu, zegoena hautsi eta zegoenaz menpeko ez bizitzea nahi zutenak. Obra konplexuetan lana banatzen den moduan hirurak egoki artikulatu behar zirela, baina, azkenean, elkarren aurka errebelatzea nahiago izan zutela gutxi batzuek, kanpoko botere handien zorionerako.

Sentitu gurela “oxala egoera puta hau lehertuko baltz!” gogo bizi eta ondratua. Eta sarritan bazirudiela ia-ia lehertzeaz zela, baina ez zela sekula osoki lehertu. Sentzilloki, apurka-apurka dena lehertzen saiatu zirelako eta leherketaz leherketa gu politikoki lehertu nahi izan gintuztelako. Etorkizunean pentsatzea guretzat mingarriegi izan zedin eta eskuragarri genuen denbora bakarra iragana, prezio merkeagoa zuen nostalgia, izatea nahi zutelako.

Okerragoetatik bezala zepo haietatik ere askatu ginen. Gogoratu eta baloratu behar dugu beti, ongi idatzia dugulako gure haragizko eta espirituzko zauriak sendatzen eta behin eta berriz berrasmatzen saiatu garen moduetan. •

KONTATU GABEKO HISTORIA

Raketista profesionalak, distira beteko izarrak kantxan eta kantxatik kanpo

 **KIROLA** / amagoia.mujika@gaur8.info

1917tik 1980ra artean ehunka emakume raketista izan ziren lanbidez, historiako lehen euskal emakume kirolari profesionalak bihurtuz. Nagusiki Madril, Bartzelona, Kuba eta Mexikoko frontoietan aritzen ziren raketarekin eta larruzko pilotarekin. Garaiko jendartean izarrak ziren; gaurkoan, kontatu gabeko historia baten protagonista.

Badira hilabete pare bat Errenteriako pilotalekuak izen berria duela: Agustina Otaola Raketista Profesionala. Inaugurazioaren egunean, Agustina ez ezik, beste zazpi emakume gerturatu ziren Errenteriako ekitaldira, guztiak bere garaian raketista profesional izandakoak, kirolari profesionalak alegia. Izan ere, 1917 eta 1980 artean ehunka emakume aritu ziren raketarekin beren bizimodua aurrera ateratzen, eta ez nolanahiko bizimodua gainera. Ehunka raketista horien arteko gehienak euskaldunak ziren. Horietako askok Estatu espainoleko eta hortik kanpoko pilotalekuetan osatu zuten beren kirol

ibilbidea, baina Euskal Herrian apenas ezagutzen den beren ibilera horien berri. Oiartzungo Txost Pilota Taldeko Ainhoa Palomok eta Jon Juanesek hilabete batzuk daramatzate mirespenez eta pasioz emakumeon kirol ibilbidea jasotzen. Izan ere, raketista profesionalena kontatu gabeko historia da, baina kontatzea merezi duena.

1917. urte inguruan Estatu espainolean hainbat pilota modalitate zeuden zabaldua; zesta, pala, eskua eta erremontea. Garai hartan pilota zen kirol nagusia Estatu mailan eta pentsatu zuten emakumeak ere kirol arloan sartzeari modu profesionalan. Garai hartan frontoia zen dirua joka zitekeen eremu bakarrenetakoa; ez zegoen ez

Ezkerrean, Salome raketista ezaguna Eibarko Astelena frontoian neskatoei eskolak ematen. Eskuinean, gerra garaiko Gros frontoia, Donostian, 1938. urtean. GAUR8- KUTXA FOTOTEKA

kasinorik ez bingorik, eta horregatik izaten zen hainbeste mugimendu frontoien bueltan. Apustu giro horretan saiatsu ziren emakumeak kantxara sartzen. «Hasieran zesta modalitatean hasi ziren jokatzeko emakumeak, Bartzelonan, baina ez zuen funtzionatu. Geroago, Donostiako Anabitarte enpresa gizona eta puntista ohia saiatsu zen emakumeen raketa modalitatea bultzatzen, hasiera batean teniseko pilotarekin. 1917. urtea zen eta pilota jokamolde guztietan adierazgarriena larruzko pilota zen. Horregatik, espektakua hobetzearen, pentsatu zuten raketistei ere larruzko pilota ematea», azaldu du Jon Juanesek.

Larruzko pilotarekin jokatzeko moduko raketak egitea izan zen hurrengo pausoa. Hasiera batean Estatu frantsesetik eta Ingalaterratik ekarri omen zituzten raketak, baina ez zuten balio larruzko pilotarekin jokatzeko; raketak erraz hausten ziren. Bazen ebanista sonatu bat, Valentin Zumalabe mutrikuarra, eta harengana jo omen zuten irtenbide bila. Zumalabek larruzko pilotarekin jokatzeko moduko raketa bereziak asmatu zituen eta haiekin hasi zuten emakume raketistek beren kirol ibilbidea. Gaur egun Zumalabe

raketa bat izatea altxor handia da. Raketisten arrakasta berehalakoa izan zen. 1919. urterako Madril en lau frontoi zeuden partida horiek hartzeko. «Saiatu ziren gizonen raketa partidak ere antolatzen, baina jokoa kontrola ezina zen», nabarmendu du Juanesek.

1923. urteko egunkarietan dagoeneko hasi ziren agertzen kirolari horien ezizenak; *La Reina de la Cancha*; *La Fenomeno de la Raqueta*; *La Leona de la Zaga*... Alegia, kantxan ez ezik garaiko komunikabideetan ere lortu zuten beren tokia kirolari horiek, beren jardunak zeukan arrakastaren seinale.

HABANA-MADRID PILOTALEKUA

Azkar egin zuen salto raketisten jardunak Estatu espainoletik kanpo. 1921-1922 inguruan Kubako pilota enpresa batekin akordioa egin eta Habana-Madrid pilotalekua sortu zuten bi enpresariren artean Habanan bertan. Garai hartan zeuden frontoien artean hori izan zen diru gehien mugitu zuena.

«Kuban, Mexikon... zestak puntu gorena lortua zuen orduko eta pentsatu zuten emakumezko raketistak ere bertara eramatea, arrakasta izango zutelakoan. Eta Madrilgo raketista onenak Kubara eraman zituz-



ten». 1924-1925 ingururako emakume raketista talde bat Kuban zegoen bizitzen eta lanean. Tartean, Agustina Otaolaren izeba, Josefina Otaola, garai guztietako raketista onenen zerrendan dagoena. Agustinarekin lau izeba raketista izan ziren bere aurretik.

Izan ere, Madrilgo eta Kubako lehen raketisten artean Euskal Herrikoak ziren asko, harrobi nagusia bertan zegoelako. «Anabitarte enpresa gizonak hasieran, proba modura, zenbait partida antolatu zituen Euskal Herrian; Biarritzen, Igeldon... Emakume raketistak teniseko pilotekin aritu ziren hasiera hartan. Baina hemen ez zuen funtzionatu eta horregatik eraman zuen proiektua Madrila». Eta raketistak Euskal Herriatik eraman zituen. Agustina Otaolak kontatzen duenez, «eskolaz eskola ibili omen zen Anabitarte neska bila. Nire izebak hala joan ziren Madrila, eskolan zeudela enpresa gizon hark eskaintza egin zuelako».

EUSKAL HERRIAN, GAIZKI IKUSITA

Harrobia Euskal Herrikoa bazen ere, bertan ez zuen arrakasta handirik raketisten jardunak. Datuak argigarriak dira; Bartzelonan aldi berean zortzi frontoi izan ziren martxan; Madrilén, historian zehar, hamabi; Euskal Herri osoan, dakigula, hiru; Donostian, Bilbon eta Eibarren.

«Euskal Herrian ez zegoen ondo ikusita raketisten ofizioa. Emakumea plazan, pilota munduan eta apustu giroan aritzea ez zegoen ondo ikusita. Emakume gazteak ziren, 15 urtetik hasita, eta garaiko gizartean askok pentsatzen zuten emakumeak etxean behar zuela. Are gehiago, batzuetan gezurretan aritzen ziren gurasoak eta Madrila edo Bartzelonara raketista joandako alaba neskame joan zela esaten zuten. Beste kasu batzuetan, behin ezkontuta, senarrak berak debekatu egin zien raketista izan zirela kontatzea, eta urtetan ezkutatuta izan zuten. Eibarren kontatu digutenez, alaba raketista sartzeko gonbitea egin ziotenean hala esan omen zuen haren amak: 'Nik ez dut alaba putarik nahi'. Kontrakotasun

Bartzelonan aldi berean zortzi frontoi izan ziren martxan; Madrilén, historian zehar, hamabi; Euskal Herri osoan dakigula hiru; Donostian, Bilbon eta Eibarren

«Euskal Herrian ez zegoen ondo ikusita; emakumea plazan, pilota munduan eta apustu giroan... Batzuk gezurretan aritzen ziren, raketista zen alaba neskame joan zela esanez»

horren gainera alaba raketista izan zen, garai guztietako onenetakoa gainera», kontatu du Ainhoa Palomok.

Kasuistika zabala da; raketista batzuek bospasei urte jokatzeko zituzten, ezkondu eta etxera erretiratzen ziren. Beste batzuek, berriz, ibilbide askoz luzeagoa egin zuten. Goi mailako kirolari profesionalak izan ziren eta hogeitaz gutxi gorako ibilbidea osatu zuten. «Harrigarria da horiei buruz ezer ez jakitea», irizti dio Palomok.

Madrilen, esan bezala, arrakasta lortu zuten emakume pilotari haiek eta 1929. urtean ireki zen Fronton Madrid, gerora *La Catedral de la Raqueta* bezala ezagutuko zena. «Anabitartek berak sortutako frontoia izan zen eta aldi guztietako raketista onenek bertan jokatu zuten. Gainera, jokamolde hau 1980. urtean amaitu zen eta ixten azkeneko frontoia izan zen. Horregatik guztiatik frontoi garrantzitsua izan zen», kontatu du Juanesek. Gainera, frontoi horrek bazituen besteek ez zituzten zerbitzuak; ile-apaindegia, jatetxea, te-aretoa...

Emakume raketisten jarduna antolatu eta bultzatu zuten enpresarien helburua dirua irabaztea zen, zalantzarik gabe. Eta raketisten inguruan dirua mugitzen zen, nahiz eta kirolari guztien panorama ez zen berdina. Onenak, punta-puntakoak, gehiago harremantzen ziren palkoarekin eta ohikoa omen zen raketistak toreroen eta aktoreen bueltan ikustea. «Raketistak modako emakumeak zirela esan daiteke. Eta, urte batzuk geroago, are gehiago. Mexikora eta Kubara joaten zirenean, mo-



Lerroon alboan, Agustina Otaola «Agustina» sakean. Beheko irudian, Maria Rosa Soroa «Soroa» sakean. GAUR8



RAKETISTA PROFESIONALAK 1917-1980

da-modako bihurtzen ziren eta aktore oso famatuekin harremantzen ziren». Alboko orrialdean Gary Cooper aktore famatua ikus daiteke raketista talde batekin, 1952an.

Maria Antonia Uzkudun, *Txikita de Anoeta* goitizenez ezagunagoa, punta-puntako pilotaria izan zen 1941etik 1967ra bitartean. Garai guztietako raketista onena bezala hartzen da, eta, Mexikon jokatu zuenean, sari oso garrantzitsuak banatzeko deitzen zioten; hipodromoko sariak, literatur mailakoak... Kontatzen dutenez, raketistek kaletik bakarrik ezin zuten ibili, ikusmin handia pizten zuelako. Eta taxi bat izaten zuten etxeko atarian egun osoan beraien zain, joan behar zuten tokira eramateko.

EHUNKA EMAKUME

1943. urteko estatistika baten arabera, jokamolde guztiak kontuan hartuta (eskuia, pala, erremontea, zesta...) 1.432 pilotari profesional zeuden eta horietatik erdia baino gehiago, 734 zehazki, emakume raketistak ziren. 1947. urteko beste datu baten arabera, urte hartan 737 raketista profesional zebiltzan kantxetan.

1935. urtean, eta izandako arrakasta ikusita, beste enpresa gizon batzuek ere interesa agertu zuten. Hartara, Jesus Goiripalista izandakoa Anabitartere ngana joan zen aholku eske, Anabitartek Madrilen egin zuena berak Bartzelonan egin nahi zuela-eta. Hala, Madrilen Anabitartek zituek raketista onenak Goirik Bartzelonan irekitako frontoira eraman zituen.

Beraz, Estatuan Madril eta Bartzelona izan ziren raketaren gune indartsuenak. Estatu espainolean 37 frontoi izatera iritsi ziren eta bakoitzean 30-40 raketista aritzen ziren. Egunero jokatzeko zituzten partidak, punta-puntan ez zebiltzanek arratsalde eta gau, eta, onenek, gau bakarrik. Horrek esan nahi du egunero betetzen zirela frontoiak. Eta diru asko mugitzen zen apustueta. Garaiko egunkariak kontatzen dutenez, egun batean Mexikoko frontoi



batean garaiko 916.000 pezeta jokatzera iristen ziren apustulari denen artean. 1952. urteko egun batean dirutza hori jokatzea esanguratsua da.

«RAKETISTEN UNIBERTSITATEAK»

Hainbeste mugimendu sortzen zuen jardunaren oinarrian raketistak zeuden, eta, beraz, harrobiak garrantzia handia hartu zuen. 1936. urtean, gerra aurretik, «Raketisten unibertsitateak» zeuden martxan. Garaiko egunkari batek jasotzen duenez, Eibarren hiru eskola zeuden martxan eta Zarautzen, Erreterian eta Tolosan beste bana irekitzeak ziren.

«Raketak arrakasta handia zuenez, neskak behar ziren. Eta orduan Euskal Herrira neska bila etortzen hasi ziren; ondorioz, raketisten eskolak sortu ziren. Neskato horiek 12-13 urterekin hasten ziren eskola horietan eta denen helburua izaten zen formakuntza jaso eta kanpora joa-

Goiko argazkian, Mexikoko Colon frontoiko inaugurazioa, 1952. urtean. Lerroon gainean, garaiko raketista koadro hoberenetakoa Kuban, 1957. urtean. GAUR8

tea, Madril, Bartzelonara, Mexikora edo Kubara», kontatu du Palomok. Raketista eskola horietara joateko ordaindu egin behar izaten zen.

Familia askok inbertsio modura ulertzen zuen, gerora raketista profesional izan eta alabak etxera dirua ekarriko zuelakoan.

Raketisten artean denetarik zegoen, hobeak eta txarragoak. Baina denek Federazioaren bidez proba bat pasatu behar izaten zuten debutatu ahal izate-

«Raketistak modako emakumeak zirela esan daiteke. Mexikora eta Kubara joaten zirenean, moda-modako bihurtzen ziren eta aktore oso famatuekin harremantzen ziren»

«Arrakasta zuenez, neskak behar ziren. Euskal Herrira neska bila etortzen hasi ziren eta, ondorioz, raketisten eskolak sortu ziren. Neskato horiek 12-13 urterekin hasten ziren»

ko. Eta raketisten mailaren arabera, beren soldata ere desberdina zen.

Punta-puntan aritzen ziren raketisten soldatak garrantzitsuak ziren. Esaterako, Agustina Otaolak bere ibilbide ia osoa Madrilen osatu zuen. Baina 1957. urtean Habana-Madrid frontoian jokatzeko kontratatu zuten eta Habanara joan zen. Berez urtebeterako kontratua zuen, baina gerra soinuak tarteko, beldurtu eta bi hilabete etxera bueltatu zen. Bi hilabete jokatu zituen, baina lau kobratu, hilean 30.000 pezeta. Dirutza bat garai hartan.

Mexikon, 1960. urtean, Agustinak 16.500 pezetako soldata sinatu zuen. Urte hartan bertan, Oarsoaldean erdi-goi mailako soldata bat hilean 4.000 pezeta ingurukoa zen. Madrilen eta Bartzelonan raketisten soldatak txikiagoak ziren, baina ez nolanahi-koak.

Soldataz aparte, kinielatan lortutakoa ere raketistentzat izaten zen. «Lehenengo kiniela jokatu behar izaten zuten gero partida jokatu behar zuten lau pilotarietako beste bik. Ilaran jartzeko ziren, bat baten aurka, eta sei tonto lortzen zituenak irabazten zuten. Hor dirua mugitzen zen, apustu mota bat baitzen kiniela. Eta horko diruaren zati bat raketistentzat zenez, haien zatiz pizgarri bat zen kinielena», kontatu du Juanesek.

Raketisten artean panorama anitza zen hala ere, eta denek ez zuten Agustina Otaolak adina irabazten. Baziren lortutako diruarekin bizirauteko zutenak eta zerbait sobera izanez gero familiari bueltan ematen ziotenak. Pentsatzekoa da horiek juxtuago biziko zirela. «Raketista bihurtzearena familiaren inbertsio bat izaten zen neurrian, familiak bueltan jasotzen zuen raketistak irabazitakoaren parte bat. Eta denek ez ziren hain ondo bizi; gastuak zeuden, raketak erosi behar ziren, etxetik kanpo bizi...», zehaztu du Palomok.

Behin kinielak jokatu, partida izaten zen, normalean bi biren kontra. Partida batzuetan baldintzak izaten ziren, ahalik eta orekatuena izate aldera. Raketisten arabera moldatzen zi-

tuzten partidak. Esaterako, Sororari debekatu egin izan zioten airez sartzea, oso ona zelako horretan, eta Agustina sakea atzeraxeago egitera behartzen zuten, oso sake ona zuelako eta min handia egiten zuelako sakearekin».

GERRA GARAIA, DEBEKATU NAHIA

1936an gerra hastean, frankistak raketisten jarduna debekatzen eta frontoiak ixten saiatu ziren, baina ez zuten lortu, ordurako indar handia hartua baitzuen kirol hark. «Dena debekatzen saiatu ziren eta, lortu ez zuten, arauak zorroztu zituzten; frontoi gehiago irekitzea ere debekatu zuten», esan du Juane-sek. Gerra garaian, beraz, etenaldi garrantzitsua izan zen. 1938. urtean, esaterako, Groseko frontoia zen raketistek entrenatzeko eta jokatzeko modua zuten leku bakarretakoa.

Raketistena estetika oso zainduko kirola zen, gonarekin eta ondo elegante jokatzeko baitzuten. Bada beste datu esanguratsu bat: larruzko pilotarekin eta abiada bizian jokatu arren, ez zuten kaskorik erabiltzen, jarduna «itsustuko» zuelakoan. Kirol arriskutsua zen eta ez behar bat baino gehiago gertatu zen buruan jasotako pilotakadak zirela eta, tartean heriotzaren bat.

1980. urtean itxi zen raketisten azken frontoia, Fronton Madrid deiturikoa. 70eko hamarkadatik aurrera apustuak eremu berriak topatu zituen; bingoak, kasinoak eta bestelakoak. Apusturako aukera gehiago zeuden eta kirol modalitateak ere ugartzen joan ziren. Emakumea, berriaz, beste kirol esparru batzuetan ere agertzen hasi zen, eta, pilotak, oro har, behera egin zuen. Faktore desberdinek eragin zuten raketaren gainbehera eta emakume kirolariaren ibilbidean kapitulu garrantzitsu bat itxi zen. Baina modu oso garrantzitsuan itxi zen, epaitegiaren borroka asko egin ondoren, raketistek kirolari profesionalak izatearen aitortza lortu baitzuten.

«Behin frontoia ixtear zela, raketistak konturatu ziren profesional modura aritu ziren arren, ez zutela ez pentsiorik ez ezer,

gizarte segurantzarik gabe aritu zirelako. Hainbat raketistek epaitegiara jo zuten eta jurisprudentzia sortu zuten. Frogatu zuten lan harremana egon zela eta zegokien pentsioa aitortu zien epaitegiak», azaldu du Ainhoa Palomok.

Estatu espainoleko lehendabiziko emakume kirolari profesionalak izan dira. Kontatu beharreko historia da. Eta, akaso, zure herrian bada baten bat.

Gaur arte dakitenaren arabera, honako herrietakoak ziren raketistak: Gipuzkoan; Irun, Oiartzun, Errenteria, Lezo, Pasaia, Donostia, Elduaian, Asteara, Irura, Anoeta, Aizarna, Getaria, Zarautz, Azkoitia, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Andoain, Ibarra, Deba, Berastegi eta Mutriku.

Bizkaian; Bilbo, Mallabia, Ermua, Markina, Gallarta, Igo eta Arrate. Nafarroan; Areso eta Iruñea. Eta, Arabam, Leintz Gatzaga.



Raketistak Mexikon Gary Cooper aktorearekin 1952an, «Kakatza» eibartarra eta «Arane II.a» elgoibartarra tartean. GAUR8

«OSO ZAILA DA HAIK JOKATZEN ZUTEN BEZALA JOKATZEA»

Maidier Mendizabal palistak, munduko txapeldun izandakoak, oso gertutik segitzen du raketista profesionalen ibilbidea. Beretzat sekulako deskubrimendua izan zen duela urte batzuk kirolari hauen berri izatea, eta, raketista guztietan onena izan dena, *Chiquita de Anoeta*, herrikoa zuela jakitea. Horregatik, kontatu gabeko

historia hau ezagutzera emateko ahalegina egiten ari da, Txost Pilota Taldekoekin elkarlanean.

Mendizabal eskarmentu handiko palista da, frontoiaren sekretuak ondo ezagutzen dituen eta liluratu egiten du raketisten jokoak. «Oso-oso zaila da raketarekin eta larruzko pilotarekin haiek aritzen ziren bezala aritzea. Pilotak

sekulako abiada hartzen zuen, frontoi txikiak ziren... sekulako teknika behar da horretarako. Eta nik, adibidez, ez nuke sekula aurrean eta kaskorik eta betaurrekorik gabe jokatu, benetako beldurra ematen du», nabarmendu du. Gaur egun jada adinean sartuta daude raketistak eta apenas iritsi zaizkigu garai hartako irudiak. «Gaur egun zaila egiten da kirolari hauek nola jokatzeko zuten irudikatzea, baina benetan ikusgarria zen beren kirol jardura. Ni saiatu naiz eta benetan zaila da. Zaila zen jokatzeko eta sekulako jokaldiak egiten zituzten, bi eskuekin, errebotarekin... Jendeak ezin du irudikatu ere egin joko zein zaila zen eta zer-nolako abildadea zuten kirolari haiek».

Maidier Mendizabalentzat sekulakoa litzateke raketisten kirol jarduna berpiztea, eskoletara gerturatu eta egungo neskatoak raketara erakartzea. «Benetan ederra da raketistak jokatzeko ikustea, espektakulu ederra». Azken urteotan erakustaldi zenbait egin dituzte, baina ez da erraza raketa egokiak moldatzea. «Antzeko pilotak egitea lortu dugu, baina raketena zaila da, oso sokateria berezia zutelako. Raketak erabat eskuz eginak ziren eta gaur egun jada ez da ezer horrela egiten», nabarmendu du.



Maidier Mendizabal, munduko txapeldun izandako palista. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

«Jaioterrian ez nuen inoiz nire lanbideaz hitz egiten; inori ez zitzaiola interesatzen iruditzen zitzaidan»

Mahaiaren bueltan eseri ditugu Maria Rosa Soroa, Miren Uzkudun Asteasu, Agustina Otaola Agustina, Emilia Gomez Emili eta Gloria Agirre Txikita de Aizarna. Guztiak raketista profesional izandakoak.

Soroa elduaindarra da izatez eta Madrilen aritu zen, Fronton Madrid izenekoan, hamasei urtez, 1961etik 1977ra bitartean. «Elduaindik Tolosara joaten ginen entrenatzera, Beotibarrera. Tarteka Madrilgo enpresario bat etortzen zen raketista berriak kontratatzen. Bi urtez aritu nintzen entrenatzen eta 16 urte besterik ez nituela eraman ninduten Madrila. Ni joan nintzenerako raketan jokatzeko pilotaleku bakarra zegoen Madrilen eta han aritu nintzen. Oso urte onak izan ziren. Aurrenoko urteetan arratsalde eta gau jokatzeko genuen, eta, geroxeago, gauz bakarrik. Ni atzalaria nintzen», kontatu du. Pilotari familiakoa da Soroa, osaba eskuz aritzen zen, baita bere anaia bat ere. Eta beste anaia batek zesta puntan jokatzeko zuen Miamin. «Amaren babes osoa izan nuen beti, hark beti lagundu zidan. Aita, berriz, mesfidatiago agertzen zen, ez zitzaien asko gustatzen ni raketista izatea».

Miren Uzkudun Asteasu asteasuarra da. Hogeitaz urtean hamahiru pilotalekutan aritu zen. «Madrilgo Iberia pilotalekuan debutatu nuen. Gero Donostia, Bartzelona, Logroño, Valentzia, Tenerife, Las Palmas, Mexiko, Kuba, berriz Bartzelona eta, azkenean, Madrilen bukatu nuen, 1960. urtean».

Miren Uzkudunek 18 urte zituela debutatu zuen. Umetan beti ibiltzen omen zen pilotalekuaren bueltan eta 1936ko Gerrak ere parte handia izan zuen bere erabakian. «Gu hamar senide ginen. Lehenbiziko bostek

Frantziara alde egin zuten. Osaba genuen bertan eta han bizi izan ziren, bueltatzerik ez zuten-eta. Beste anaia bat gudari joan zen eta familia osoa erabat sakabanatuta egon ginen urte askotan. Guk Asteasun denda genuen, denetarik saltzen zen bertan. Aita udaletxeko idazkaria zen eta kartzelan sartu zuten. Eta horrelaxe gertatu ginen, sakabanatuta eta lanik gabe. Zerbait egin beharra zegoen eta niri ikastea ez zitzaidan asko gustatzen. Eta Tolosara raketan entrenatzera joaten hasi nintzen. Bi hilabetez entrenatzen aritu eta Madrila eramanez gintuzten, Iberia izeneko frontoi berri batera. Bi urtez aritu nintzen Madrilen eta,

handik, esandako toki horietara mugitu nintzen».

Emili valentziarra da. Baina urtero etortzen da Euskal Herriara bisitan, Asteasura. Asteasu eta biak elkarrekin aritu ziren raketista jardunean eta orduan sortutako laguntasunak bizirik segitzen du. Horregatik etortzen da urtero lagunaren etxera. Euskal Herrian zegoela-eta, gure mahaira eseri da kasik 40 urtetan raketista profesional izandakoa. 1944an debutatu zuen eta 1980an erretiratu.

«Haurra nintzela Valentzian pilotaleku bat inauguratu zuten eta beti haren bueltan ibiltzen nintzen aitarekin. Nire anaia zaharragoek ikasi egiten

SOROA, ASTEASU, AGUSTINA, EMILI
ETA TXIKITA DE AIZARNA

RAKETISTA PROFESIONALAK

Bost emakume hauek kirolari profesionalak izan dira. Ibilbide desberdinak marraztu dituzten arren, beren belaunaldiko emakume gehienek bizimoduaren oso bestelakoa bizi eta gozatu izana partekatzen dute.

amagoia.mujika@gaur8.info

zuten, baina nik ez neukan baterere garbi zer egin nahi nuen. Behin aitak makiltxo batekin harri bat jotzen nola nenbilen ikusi zuen. Eta orduan esan zidan bazekiela ni zer izango nintzen: pilotaria. Hasieran pilotak jasotzen aritu nintzen tita bezala, oso txikia nintzelako. Baina garai hartan Moscardo ministroak esan zuen ez zela fitxa gehiago egingo, raketak joak desagertu egin behar zuela, ez omen zen-eta baterere dotorea emakumeak hain joko 'bortitzean' aritzea. Gainera, raketistak ama ezin zirela izan ere bazioten... Orduan, nahiz eta entrenatzen aritzen nintzen, zaila nuen debutatzea. Gainera, nik 13 urte nituen eta 14 urtera arte ezin zen lanik egin. Azkenean, baina, tranpa bat hemen eta beste bat han, lortu nuen debutatzea. Hain txikia nintzen raketaren kirtena moztu egin behar izan zidaten pixka bat, bestela lurra jotzen zuen-eta!».

Agustina Otaola lehen emakume pilotariaren ondorengoa da. «Nire izeba izan zen kantxa bat zapaldu zuen lehen emakumea, 13 urte zituela. Guztira nire lau izeba aritu ziren raketista, lehenengoak izan ziren. Nik anaiarekin jokatzeko nuen, eskuz oso ondo jokatzeko zuen hark eta harekin entrenatzen nuen. Enpresario bat etorri zen neska batzuk entrenatzera eta ni ere tartean izan nintzen, nire izebek hala eskatuta. Eta horrelaxe joan nintzen Madrila, izeben etxera. Pilotaria izatea gustatzen zitzaidan, baina ez zitzaidan baterere gustatzen etxetik urrun joan beharra. 14 urte nituen, sekula ez nintzen herriatik atera eta ez zen erraza izan. 1942ko otsailean debutatu nuen, 15 urte egin berri».

Agustina 1967 bitartean aritu zen pilotan, ibilbide distiratsua marraztuz. Bere sakea famatua izan zen Madrilgo eta Bartzelonako frontoietan. Habanara ere joan zen 1957. urtean, Habana-



Ezkerretik eskuinera; Agustina Otaola «Agustina», Emilia Gomez «Emili», Maria Rosa Soroa «Soroa», Gloria Agirre «Txikita de Aizarna» eta Miren Uzkudun «Asteasu».

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

BIZIMOLDEA

Raketista profesionalena ofizio bat zen, kirolarekin ateratzen baitzuten aurrera bizimodua. Baina bizimolde berezi bat ere bazekarren pilotari izateak; etxetik kanpo bizitzea, bidaiatzeko aukera izatea, fama...

Madrid frontoian jokatzeko fitxatu zutelako. Baina, Kubako giro politikoa gori-gori zegoez, espero baino lehenago bueltatu zen.

«ETXEAN LATA EMAN NUEN»

Gloria Agirre, *Txikita de Aizarna*, herriko pilotalekuaren ondoan jaioa da eta orduak eta orduak ematen zituen haren bueltan, pareta haien sekretu guztiak ondo ezagutzeraino. Aita pilotari bikaina zen eta etxeko guztiek jokatzeko zuten pilotan. «Zumalaberaren raketa bat oparitu zidaten eta nik gero eta grina handiagoa nuen jokatzeko. Euskal Herrian ez zegoen aukera handirik eta nik bane-kien Madrilen aritzen zirela

emakumeak raketarekin. Etxean sekulako lata eman nuen eta azkenean Madrila joan nintzen 18 urte nituela». 1963tik 1980ra bitartean aritu zen.

«Akordatzeko naiz nola esan zidaten Aizarnako neska batek debutatu zuela eta nire antz handia zuela, eskuz asko jokatutakoa zelako ni bezala», gogoratu du ondotik Asteasuk.

AURRERA EGITEKO MODU BAT

Alaba Raketista profesionala izatea etxe askotan aurrera egiteko aukera moduan ikusten zen. «Gure etxean dena kendu ziguten eta zerbait egin beharra zegoen. Ez zegoen beste erremediorik. Nik ahizpa jostuna nuen eta lagun asko zeuz-

kan han eta hemen. Ahizparekin joan nintzen Madrila. Iberia frontoia berri-berria zen eta gustura hasi nintzen han. Lehen urtetan ez, baina gerora beti saiatzen nintzen etxera diru pixka bat bidaltzen. Baina guk gastuak ere bagenituen, pentsioak eta... Toki batzuetan pisua hartzen genuen eta lauzpabost raketista bizi ginen elkarrekin. Baina, normalean, pentsioetan bizi ginen», kontatu du Asteasuk. Madrilen zegoenean Vespa motor batean mugitzen zen; «ikaragarri gustatu izan zaizkit motorrak!», aitortu du. Eta, Mexikon, berriz, kirol-auto bat ibiltzen zuen. Mexikon, era berean, astero argitaratzen zituzten aste horretan

pilotalekuan lehiatuko ziren raketisten kromoak eta jendeak kromoak sinatzeko eskatzen zien. Detaile horiek erakusten dute zer-nolako bizimodua izan duten kirolari hauek, bere garaiko emakume askoren bizimoduaren oso bestelakoa.

Garai hartan raketista baten zat maila gorena Mexikon zegoen. «Mexikon asko jokatzeko, zaletasun handia zegoen eta raketistek fama handia genuen. Bi urte eman nituen Mexikon. Hango urak txarrak dira, baina nik berdin-berdin edaten nuen ura iturritik eta sekulako kaltea egiten zidan. Medikuek esan zidan 'parke zoologikoa' neukala sabelean eta ebakuntza egin behar izan zidaten.



Pixka batean lasai egon nintzen eta osasuna berreskuratu nuenean Valentziara joan nintzen, eta handik, Kanaria uhar-teetara. Eta, gero, Kubara. Bi urteko kontratua egin ziguten, kontratu ona gainera, baina Fidel etorri zen eta handik atera ginen. Bizpahiru hilabete bakarrik eman genituen azkenean Kuban», segitu du Asteasuk.

Partidetan dirua jokatzzen, eta asko gainera. Eta dirua tartean denean, pozak eta hasereak muturrekoak izaten dira askotan. Horregatik, raketistei «denetarik» entzutea egokitu zaie. «Dirua galtzen zuena gurekin haserretzen zen eta ‘coger el trapo’ eta horrelakoak esaten zizkiguten batzuetan. Astakeria batzuk entzutea egokitzen zitzaigun, bai». Kantxan emakumeak ziren nagusi, baina harmailetan apenas ikusten zen emakumerik. «Gizonak joaten ziren pilotalekura, eta, gainera, dirua zeukatenak, han diru asko jokatzzen zen-eta», jarraitu du asteasuarrak.

Normalean ez zuten entrenamendurik egiten, egunean behin eta askotan bitan jokatzzen baitzuten; «nahiko entrenamendu bazen», esan du Agustinak. «Hori bai, pilotalekua aldatzen bagenuen entrenatzen genuen, baita sasoi txar batean sartuta geundenean ere. Baina normalean ez genuen entrenatzen, nahiko entrenamendu bazen-eta egunero-egunero jokatzeta», jarraitu du.

«Tira, beti pilotaleku berean jokatzzen zuenak ez zuen entrenamendu beharrik akaso, baina pilotaleku batetik bestera ibiltzen zinenean ezberdina zen, alde handia baitzegoen pilotaleku batetik bestera. Ni pilotaleku desberdin askotan aritu izan naiz eta badakit hori», gaineratu du Emilik. Mahaian eserita dauden artean, Asteasu eta Emili izan dira gehien bidaiatu dutenak.

«OSO ONDO PASATZEN GENUEN»

Kirolari profesionalak izateak eta kirol jarduera horri esker hara eta hona bidaiatzeak bizimodu klase bat ekarri zien raketistei, bere garaiko emaku-

meen bizimoduaren oso desberdina. «Raketistaren bat hiltzen zenean, bazekiten hileta ahalik-eta beranduen jarri behar zela. Izan ere, gu gauean berandu arte aritzen ginen jokatzzen eta goizean lo pixka bat egin beharra genuen. Gainera, maiz partida bukatu eta gero trago batzuk hartzera ere joaten ginen. Gu pilotalekuan jokatzzen ari ginen bitartean, aldageletan emakume batzuk egoten ziren behar genuenerako; jatekoa eta edatekoa prestatzen ziguten. Azken partida jokatzzen genuenek bagenuen ohitura amaieran trago batzuk elkarrekin hartzekoa. Egia esan, oso ondo pasatzen genuen», kontatu du Agustinak.

«Hiletena kontatzen hasita, hiletak bukatzean bagenuen ohitura elkarrekin zerbait jatera joateko. ere Ezkonduta zeudenak etxera erretiratzen ziren eta ezkongabeak elkarrekin buelta bat egitera joaten ginen. Gehienak ezkongabeak ginen eta hala segitzen dugu. Nik esaten diet hauei ni hiltzen naizenean mesedez gero elkarrekin ondo pasatzera joan daitezela», esan du Emilik umorez.

Soroa, esaterako, ama izan zen raketista profesionala izan zen bitartean. Alaba txikia saskitxo batean eramaten zuen entrenamenduetara eta denen artean zaintzen zuten. «Saskitxoa edozein modutan uzten zuen; haurrak gau txarra eman ziola-eta kexaka etortzen zen entrenatzera. Denon artean zaintzen genuen han pilotalekuan bertan. Egia esan, ederki pasatzen genuen», segitu du valentziarrak.

Raketistak kirolari profesionalak ziren eta Madrilgo eta Bartzelonako gizartean ezagunak eta prestigiodunak ziren, garaiko torero eta aktoreen pare ibiltzen zirenak. Kuban eta Mexikon, berriz, are ezagunagoak ziren oraindik, izarrak. Sari banaketa garrantzitsuetan ohikoa zen raketistak sariak banatzen ikustea. «Manoletak berak esan zuen ni ikustera etorriko zela, neskak», esan du Agustinak txantxetan lagunak zirikatuz. Emili oso garbia izan

«Gerra ondoren sakabanatuta eta lanik gabe geratu ginen. Zerbait egin beharra zegoen eta niri ikastea ez zitzaidan asko gustatzen. Eta Tolosara raketan entrenatzera joaten hasi nintzen»

«Zumalaberen raketa bat oparitu zidaten eta nik jokatzeko gero eta grina handiagoa nuen. Euskal Herrian ez zen ia aukerarik eta nik banekien Madrilen emakumeak raketarekin aritzen zirela. Sekulako lata eman nuen etxean»

«Dirua galtzen zuena gurekin haserretzen zen eta ‘coger el trapo’ eta horrelakoak esaten zizkiguten batzuetan. Astakeria batzuk entzutea egokitzen zitzaigun, bai»

da: «Ez zuenak ligatzen ez zuelako nahi zen».

Kanpoan asko maitatu eta miresten zituzten raketistak, baina, etxean, Euskal Herrian, apenas hitz egiten zen haiei buruz. «Nik hemen ez nuen inoiz hitz egiten nire lanbidez, ez zitzaidan iruditzen inori interesatzen zitzaionik. Gogoa dut nire anaia joaten zen ile-apaindegian egun batean nola erakutsi zioten egunkari bateko orrialde bat, gordeta zeukaitena. Nire partida baten berri ematen zuen egunkariak eta ‘Agustina, la maravillosa delantera’ jartzen zuen. Anaiari erakutsi eta ‘zure arreba apalegia da’ esan zioten», kontatu du Agustinak.

Euskal Herriko etxe askotan ez zen begi onez ikusten raketisten jarduna; plaza publikoan, apustu giroan, gauez... Garaiko euskal jendarte itxiaren begietara ez zen ofizio duina kirolari haiena. «Etxe askotan lotsa ematen zien alaba raketista zela esatea eta neskame joan zela esaten zuten», gogoratu du Asteasuk.

ITXURA, ESPEKTAKULUAREN PARTE

Raketistek gonarekin jokatzzen zuten. Garaiaien arabera ezau-garri desberdinak zituen, baina beti itxura dotorearekin. Izan ere, jokalarien itxura espektakuluaren parte zen. Beste datu esanguratsu bat kaskorik gabe jokatzzen zutela da, larruzko pilotarekin eta sekulako abiadan jokatzzen zuten arren. Jardun arriskutsua zen raketistena eta bat baino gehiago larri zauritu zen buruan pilotakadaren bat jasota. Areso raketista buruan pilotakada bat jaso ondoren hil zen. «Areso aurrelari bikaina zen, beldurrik ez zuena. Eta pilota guztietaraitsu-itsuan sartzen zen. Askotan sakatzera gindoazenean ere aurrean jartzen zitzaigun. ‘Kendu paretik buruan emango dizugu-eta’ esaten genion, baina hark lasai sakatzeko erantzuten zigun», kontatu du Soroak. Aresok pilotakada ugari jaso zituen buruan bere kirol ibilbidean eta horietako baten ondorioz hil zen. «Nik eman nion pilotaka-

da hura», gogoratu du Emilik. Medikuen esan zutenez, «burua kristalezkoa bailitzan zeukan» jaso zituen kolpe guztien ondorioz.

RAKETISTEN BERTUTEAK

Agustinaren sakea goraipatzen dute garaiko kronikek. Gaia mahaian gainean jarri eta Soroa izan da hizketan lehena. «Agustinaren sakeaz hobe ez badugu hitz egiten. Ni atzelaria nintzen eta Agustinak sake guztiak sartzen zizkidan nahi zuen moduan. Oraindik ere haserretu egiten naiz gogoratzehutsarekin!», esan du umorez.

Soroaren esku indartsua eskuina zen, «ezkerrarekin ezdeusa nintzen». Airez oso ondo sartzen omen zen Soroa, nahiz eta emakume hauei asko kostatzen zaien beren bertuteen gainean hitz egitea, errazago fmatzen dituzte adiskideenak.

Txikita de Aizarnaren sakeak ere eman du zeresana elkarrizketan. «Sakea puntu sendoa zen niretzat. Eta horrekin batera nire jokatzeko estiloa nabarmentzen zuten, eskuzkoaren oso parekoa. Lotsa pixka bat ematen dit esatea, baina, inoiz piropo ederrik esan badidate, hori Bilboko pilotari batek esan zidana izan zen: ‘Zuk balleta egiten duzu pilotarekin’. Zalan-tzarik gabe inoiz esan didaten gauzarik politena da».

Emilik errebotea eta errebesa maite zituela gogoratu du. Gehiago kostatu da Asteasuk bere bertuteen gainean hitz egitea. Bere esanean, «lotsa gero eta handiagoa» izatea da adinak utzi dion aje bakarra. Egia esan, sasoi beteko dago 93 urte bete bezperatan. Gainontzekoek aho batez nabarmendu dutenez, «pilotari oso-oso zen Asteasu, alor denetan bikaina».

Kirol bizitza zoragarriak izan dituzte, kirolari profesionalak izan dira –Estatu espainolean lehen emakume kirolari profesionalak–, beren garaiko emakume gehienek aldean ibilera oso desberdinak ibili dituzte Euskal Herriki kanpoko pilotaleku eta kaleetan. Eta, hemen, beren herrian, apenas dakigun ezer gure raketisten inguruan.

Loreak

Antton Izagirre

Ezezagunak bidalitako loreak maitasun istorio txiki baten sinbolo erraldoi bilakatu dira. Loreak dira gure memoria kolektiboan ditugun oroimenaren lekuko.

Baditut lagunak, urterik galdu gabe, nire urtebetetze eguna oroitzeko loreak bidaltzen dizkidatenak. Maiteak ditugunei loreak igortzen dizkiegu. Lorez laguntzen dugu galdu berri dugun senide edo lagunaren oroimena. Loreak eramaten ditugu hilerrira haien oroitzapena bizirau-narazteko. Lore sorta koloredunak, lore zurriak, lore gorriak...

Lore gorri bana utzi diegu 36ko gerran hilak eta fusilatuak, urte luzetan lurpean

ahaztuak, izan eta orain geure memoriara berreskuratutakoei. “Geureak” gogorarazteko egin dugu, “besteek” ahaztu nahi izan zituztenak. Azken urte luze hauetako gatazkan galdutako “geure hildakoei” sarritan loreak jarri dizkiegu, geure oroimenean ditugun lekuko. Ohartu gara “besteek” ere “euren hildakoak” lorez oroitu izan dituztela. Azken finean, gaur-gaurkoz, “geure hildakoen” eta “haien hildakoen” arteko urtetan eraikitako lubakiek itxi ezinak dirudite.

Zer gerta liteke, egun batez, “geureak” ezezagunen loreak jasotzen hasiko balira eta “haienak” ere beste ezezagunen loreak jasoko balituzte? Horrek ez ote luke alda-

tuko guztion begirada? EH Bilduko Asier Arraizek Legebiltzarrean eta komunikabi-deetan egindako aitorpenek PPko Arantza Quirogaren “loreak” jaso dituzte. Eta hark “lorez” itzuli dio aurkarien artean bakea eraikitze nahia.

Bakea, bizikidetza, memoria eta aitortza eraikitze “loreak” ezinbesteko sinbolo izango dira, eta “hitza” izango da haien aldarri. “Loreak” eta “hitza”. “Hitza” eta “Loreak”. Hitza, errelatoa, ez da bakarra izango, errealitatea anitza izaki, baina plurala izan liteke; “geurea” eta “haiena”. Aldiz, “Loreak” bai guztionak dira. Gai izan behar dugu geure “Oskar” propioa eraiki, irabazi eta jasotzeko. Geure esku dago! •

«Alternatiben EHria»

Andoni Egia

Ez, ez da posible, ezin liteke, eta gainera ezinezkoa da. Ez da ados edo kontra egotearen kontua. Ez da politikoa, ez da soziala, ezta ekonomikoa ere. Gezurra da, sinesmena eta mitoa, sinestearen indarraz ere, ezinezkoa izaten jarraitzen duena. Garaiotan ere, ez, ez da erlatiboa, ziririk handiena, utopiarik ezinezkoena, Kapitalismoa baita. Eta bizitza doakigu.

Batetik, ekonomiak etengabeko hazkunde behar du, urtean %3koa. Hazkunde honen bidez, ongizatea munduko pertsona guztiengana eramango du eta. Gezurra! Ezer ezin daiteke etengabe hazi, are gutxiago euskarria, mundua, urtean %3 hazten ez bada. Bestetik, lehiakortasuna

omen da garapena eragin eta hedatuko duena. Gezurra! Lehia hitzak dioen bezala, batzuek irabaz dezaten, besteek galdu egin behar baitugu. Eta horrela, zientzia mitogengatik ordezkatzuz, eta egia interesen azpian ezkutatzuz, natura deuseztatu eta mota guztietako desberdintasunak (klasea, generoa, jatorria, herrialde artekoa) indartzen dituzte.

Artikulu sorta honetan, Gezurra ezeztatzen saiatuko gara. Esaerak dioen bezala, usteak usteltzen utzi eta iluntasunari argi pixka bat ematen ahaleginduko gara, egia berriak irudikatuz, amestuz eta ezagutuz. Kapitalismoaren utopia ilun horren azpitik, orde, eredu berri baten lehenengo zantzuak ikus ditzakegu. Ekonomiaren

sektore guztietan, hau da, finantzetan, energian, telekomunikazioetan, zaintza-ren sektorean, industrian, lehenengo sektorean, hirigintzan... elkartasunean, jasangarritasunean eta demokrazian oinarritzen diren inizatiba berriak sortuz, mundu berri baten hezurdura mamitzen ari gara. Eta zu ere parte izan zaitezke. Hemen eta orain.

Bakarrik ezin duguna, elkarrekin posible dugula badakigulako, Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritzen diren egia berriak ekoizten, konpartitzen eta kontsumitzen ari gara, eta urriaren 24an, Bilbon gauzatuko dugun Alternatiben Herrian, horietako batzuk irudikatu, amestu eta ezagutuko ditugu. Ba al zatoz? •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Belartza

Ahaztu dut jada ezer ez zegoenean zer zegoen Belartzan, baina nik hemen ikasi nuen gidatzen; bizkarra aurrerantz oker-oker eginda eta bolanteari naufrago batek azken oholari bezala helduta ibiltzen nintzen orduan, eta zalantza egiten nuen biribilgune bakoitzean bidegurutze bakoitzean bihurgune bakoitzean, eta mantso nindoanean ere azkarregi joaten nintzen –«sartu *tercera*», zakurrei euskaraz eta teknologiari gazteleraz egiteko euskaldunok daukagun joera berezko horrekin–, eta ez nuen enpresen izenik irakurtzen –Kebidek, Txapeldun, Decathlon bata bestearen atzetik–, nik errepidea ikusten nuen eta hiru ispilu eta kamioi horiak eta arratsaldeko seietan puntu-puntu aparkalekutik ateratzen ziren autoak, polikiago nindoala eta atzetik bozina jotzen zidate-nak; eta abiadura hartu nahi nuenean martxak ez ziren sartzen, eta geldiu-ne bakoitzean kalatzen zitzaidan autoa; denbora gomazkoa da, autoaren eta presaren arabera estutzen eta zabal-tzen da eta ez nuen ertzetara begira-tzen, ez nuen biribilgunezko zuhaitzik ikusten, huntza arroketan eta espaloi gorrixka eta baserriak han goian eta leihotik sartzen zen gasolina eta belar bustiaren usaina, mantso joan arren azkarregi nindoan edo azkarregi zihon dena, auskalo, eta ahaztu egin zitzaidan zer zegoen hemen ezer ez zegoenean, noiz sartu ziren hondeamakinak eta zer puskatu zuten eraikitzen hasi zirenean eta zerk estaltzen zituen zaurien gisa zabaldutako harri hauek; **noraino heltzen ziren belazeak eta sagarrondoak eta lurpean ezkutatu zen erreka eta ea gauak ilunak ziren oraindik edo baserri gehiago zeuden eta ze soinu, ze usain zuen Belartzak Belartza izan aurretik;** bizikletan etorriko ginen beharbada, jada ez naiz gogortzen, orduan ez zegoen tunelik, ez zegoen etxebizitza horirik Errekaldeko sarreran, ez zegoen iturridun plazarik; baina hormigoioak ez du memoriarik eta guk ere ez, umetan saiatzen ginen hormigoi lehortu gabeen oinatzak uz-

ten baina oinak hazi egiten dira eta oinatzek utzi egiten diote gureak izateari; eta enpresak eraiki ziren eta denbora, goma zati hautsi hori estutzen eta estutzen joan zen eta larunbat goizetan umeak etortzen dira Decathloneko saskibaloia kantxara, gu ibili ginen saskietan ibiliko dira ibili ginela ahazten dugunean ere, eta gu bezala etorriko dira autoak gidatzen ikastera gurasoen laguntzarekin –«kontuz, auto hori begiratu gabe aterako zaizu»– eta lurra desagertzen ikusiko dute, gero eta hormigoizkoago eta “rekalifikazioak” **eta lur urbanizagarria eta lur industrialak eta izenondoak agertzen eta desagertzen, mantso baino azkarregi eta Belartza I eta Belartza II eta Mercadona eta izen gehiago agertzen eta desagertzen;** fabrikak husten dituzten garaietan poligono berriak eraikitzen dira, eta huntza gose da, arroak bezala jaten ditu horma abandona-

tuak, errepide ahaztuak; baina ahaztu egin zitzaigun mantso joaten –«sartu *tercera*»–, punturik gabe arnasestuka zirriborratzen ditugu koadernoak eta geratu ezin ziren autoen goma-arrastoz beteta daude errepideak; puskatu eta eraiki egin behar dugu, puskatu eta eraiki eta gidariak zabartzen eta harrotzen joango gara, biribilguneetara lotsagabeago sartzen, ispiluetatik begiratzea ahazten, “L”-dunei bozina jotzen eta huntza haziko da zaurien gisan agertutako arroketan, eta sareak jarriko ditugu lurrik erori ez dadin gure poligono perfektura, gure oinatzik gabeko hormigoira, eta ahaztu egingo gara usainekin; **ahaztu egingo dugu aurrera egiteak zerbait atzean uztea dakarrela eta zer zegoen hemen ezer ez zegoenean, ezer ez dagoen lekuetan beti dagoelako uste duguna baino gehiago, atzeko ispilutik begiratzea ahazten zaigun arren.** •



Mantso joan arren azkarregi nindoan eta ahaztu nuen zer zegoen hemen.

J. URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Laura Mintegi

Atzera begiratu aurrera egiteko

Politikagintza ez da oso ezberdina irakaskuntzatik. Ez litzateke izan behar, behinik behin. Zerbitzu publikoa da, kolektiboaren ongizatea helburu duena, eta pertsonen onurarako antolatzen du bere jarduna. Horregatik, irakaskuntzan bezala, politikagintzari ere eskadakioke osatzea edozein prozesutan ezinbestekoak diren pausuak: lehenik programatu, helburuak finkatu alegia; ondoren, programatutakoa aitzina eraman; eta, azkenik, egindakoa ebaluatu, ezinbestekoa baita jakitea zer egin den txarto, edo ondo, hurrengo programazioa egin aurretik.

Horrexegatik, ez dut ulertzen nola has daitekeen hurrengo hauteskundeetarako prozesua martxan jartzen (hautagaien izenak proposa ditzatela eskatu zaie koalizioako militanteei) aurreko prozesua oraindik burutu gabe badago. Non dago ebaluazioa? Ebaluazioa egitea oinarri-oinarrizko jarduna da egindakoa hobetu nahi bada, edozein eremutan. Programatu zen hartatik zer bete den, zer gelditu den erdibidean, zer ez den abiatu ere egin. Akatsak egon badi-ra, non izan diren, zergatik, eta zerk egin duen huts. Balorazioa egitea eta gertatutakoa aztertzea funtsezkoa bada lantokian, eskolan, bikotekidearekin, lagunartean, nola ez da ba izango politikagintzan ere, zerbitzu publikoa dela kontuan hartuta?

Indar politikoei begira jarrita, zenbait galdera oinarriko bururatzten zaizkit hurrengo hautagaien izenak botatzten hasi aurretik. Esaterako: nolako emaitzak izan dituzten aurreko hauteskundeetan; zertan egin duten ondo, eta zertan ez; zein izan den herritarrek beren gestioari eman dioten erantzuna, eta zergatik; zein den indar politikoa eragina herritik kanpoko erakundee-tan; zenbateko ahalegina egin behar den etxeko erakundee-tan eta zenbatekoa atzerrikoetan (Madril eta Brusela); nork hartzen dituen erabakiak, nola eta zein mekanismoren arabera.

Ezker subiranisten koalizioak parte hartze prozesu bat abiatu du. Beti da positiboa partaidetza bultzatzea, ez-bairik gabe, baina bi gauza ez ditut ulertzen. Batetik, non daude balantzeak: non dago aurreko lau urteetan

kudeaketan aritu ziren ehunka hautetsien balantze zintzoa; eta non dago, bestetik, hauteskundeetara aurkeztu eta erakundeetako atean geratu diren hautagaien balantzea. Agian balantze hauek guztiak eginda daude eta ez dira publiko egin. Baliteke publiko egin behar ez izatea. Baina militanteei eskatzen bazaie hurrengo hautagaien izenak proposa ditzatela, nekez asma dezakete nor den hautagai aproposa alde aurretik ez bada baloratzen aurreko hautagaiek egindakoa.

Bestetik, ez dut ulertzen zein arinki erabiltzen diren hitz batzuk: “ahalduntzea”, esaterako. Norbaitek esaten badu pertsona bat, emakumeak edo herritarrak “ahaldundu” nahi dituela, baiki, *contraditio in terminis* argia ari da adierazten. Norberak du ahalmena buruaskia izateko, eta, beste batek eman behar badio gaitasuna erabakiak har ditzan, orduan meneko bihurtzen du, ematen dion moduan berdin-berdin kendu ahal diolako. Inor ez

Egia da egutegi politikoa kanpotik inposatuta datorrela, baina norberaren esku dago besteen epeetara makurtu ala nork bere buruari denbora nahikoa ematea koherentziaz eta zintzotasunez jokatzeko

da nor beste pertsona bat ahalduntzeko. Norberak du ahalduna izateko ahalmena, haatik, buruaskia delako. Ahalduna izateko erabakia ere norberarena da. Inork ezin du erabaki herritarrek edo emakumeek noiz duten ahalmena, noiz ez, zer egiteko eta zer ez egiteko.

Hasierara bueltatuz, balorazioa da gabetsi egiten du-dan ariketa. Prozesu berririk ezin da abiatu aurreko prozesuaren ziklo osoa buruturik egon aurretik. Egia da egutegi politikoa kanpotik inposatuta datorrela eta hauteskundeak ez direla deitzen barneko prozesuak eragindakoaren ondorioz, baina norberaren esku dago besteen epeetara makurtzea eta erabakiak arinki hartzea, ala nork bere buruari denbora nahikoa ematea koherentziaz eta zintzotasunez jokatzeko. Arerio politikoak ez dezala irabazi politikagintzan horren garrantzitsua den lehenengo bataila: *tempus* politikoarena. •

MENDI MARTXA ERDIGUNERA

Mendi martxa antolatu dute Euskal Herriko erdigunera, «zerbaiten erdigunera delako, euskal lurren erdigunea»

Mendi mar-
txa soil bat
b a i n o
g e h i a g o
izango da
Indepen-
dentistak sareko kideek, Irur-
tzungo Iratxo mendi taldeare-
kin eta Sakanako mendizaleekin
elkarlanean, biharko Euskal He-
rriako erdigunera antolatu dute-
na. Martxarekin, mendizaleta-
suna eta honek gordetzen
dituen balioak aldarrikatzeaz
gain, lurraldetasuna landu nahi
dute antolatzaileek. Euskal He-
rriaren erdigunea zapaldu eta
aldarrikapenez beteko dute, Es-
tatu espainolean Hispanitatea-
ren Eguna ospatu bezperan.

2011. urtean du jatorria bihar
egingo duten mendi martxak.
Behin 2004an Felix Isasak Eus-
kal Herriko erdigunea identifi-
katuta –Andia mendilerroan ko-
katzen da, Beriain mendi
tontorretik nahiko hurbil. Olibe-
sario sakonune edo sarioian,
1.236 metroko altueran–, bertara
martxak egiteari ekin zioten in-
guruko mendi taldeetako kide-
ek, baina 2011koan Independen-
tistak sareak martxara batzea
erabaki zuen. Haren ostean, ba-
lorazio batzar batean, mendi
martxa urtero errepikatzea
adostu zuten, mendi taldeek an-
tolatuta eta Independentistak
sarearen bultzada izango zuena.

Baina gauza bat eta bestea, ez
zuten lortu ondorengo urteetan
martxa errepikatzerik. Indepen-
dentistak Sareko kide Txutxi
Ariznabarretak azaldu du
2014ari begira hasi zirela gauzak
mugitzen; «baina berandu gen-
biltzan. Hala, erabaki genuen,
egiteagatik eta presaka baino,
hobe zela ez egitea». 2015erako
uztea adostu zuten, eta horre-
tan dihardute urte hasieratik.
«Lehenengo bilkura urte berria-
rekin batera egingo genuen, eta
bertan mendi martxaren data
adostu genuen. Maiatzetik au-
rrera maiztasun handiagoz bil-
du gara ekimena ganoraz pres-
tatzeko», adierazi du. Zentzu
horretan, antolakuntzaren pisu

handiena Iratxo mendi taldeko
kideek eta Sakanako mendizale-
ek hartu dutela azaldu du, eta
eurek ekimenak hedabideetan
oihartzuna izateko ardura hartu
zutela gaineratu du: «Mendi
martxaren kontuarekin ez ge-
nuen protagonismo handirik
hartzerik nahi, alegia, gure
mendi martxa bat bilakatzerik
nahi. Guk uste dugu gai hone-
tan bere pisua mendi munduan
dabiltzan eragileek izan behar
dutela, Euskal Herriaren erdigu-
nea mendigune batean kokatuta
baitago, paraje eder batean»,
azaldu du Ariznabarretak.

MENDIZALETASUNA ETA BALIOAK

Ekimenarekin, lurraldetasuna-
ren afera mahai gainean jartze-
az gain, mendizaletasuna ere
bultzatu nahi dutela azpimarra-
tu du Independentistak sareko
kideak: «Aldarrikatu nahi dugu
Euskal Herrian betidanik izan
dela ohitura mendi irteerak egi-
teko». Zentzu horretan, atzera
begira ariketa bat proposatzen
du Ariznabarretak, frankismoko
garaietara adibidez. Dioenez,
ikusi ahal da mendizaletasunak,
herrian sustraituta egoteaz
gain, bazuela loturarik eskubi-
deen aldarrikapenarekin, «bai
giza eskubideekin bai herri be-
zala ditugun eskubideekin». Eta
adibide bezala ikurrina de-
bekatuta zegoen garaietan egi-
ten ziren desobedientzia ekime-
nak ekarri ditu gogora, mendi
tontorretan ikurrinak jartzeare-
na kasu.

Bestalde, mendizaletasunak
dituen balioak goraipatu ditu
Ariznabarretak, jasagarritasuna
eta ekologia, horien artean:
«Gure lurraren zaintza, finean.
Erabat urbanoa den bizimoduan
sartuta gauden garaiotan men-
dian gaudenean jabetzen gara
lurraren garrantziaz eta lurrare-
kiko dugun harremanaz». Lur
horrek dakar, Ariznabarretaren
esanetan, lurraldetasunaren
zentzua; lurra, zerbait fisikoa
izateaz gain, karga historikoa
duen elementu bat ere badela-
ko, haren esanetan.

 **JENDARTEA /** Aimar Etxeberria Korta

Irurtzungo Iratxo mendi taldeak, Sakanako mendizaleek eta Independentista sareak antolatuta, Euskal Herriko erdigunera mendi martxa egingo dute bihar. «Lurraldetasunaren martxa» bilakatzea asmo duen ekimenak mendizaletasunak biltzen dituen balioak aldarrikatu nahi ditu.

Irurtzungo Iratxo mendi taldeko kideak eta Sakanako mendizaleak, Independentistak sareko kideekin batera, mendi martxaren aurkezpen ekitaldian.
Iñigo URIZ | ARGAKZI PRESS

Baina, zergatik egin martxa Euskal Herriaren erdigunera? Bada, erreferentzia garbi bat delako, Eñaut Landa Independentistak sareko kideak dioenez. Antza denez, bada munduan zehar erdiguneak identifikatzeko joera. «Bere garaian markatu zuten Europaren erdigunea, nahiz eta aldatzen joan behar izan duten herrialde berriak Europar Batasunera gehitzen joan ahal-
a», azaldu du Ariznabarretak.

Erdigunearen ideiarekin gogoe-
ta bat plazaratu du: «Erdigune
bat badago, zerbaiten erdigunea
dena. Baina, zerena? Ba, euskal
lurren erdigunea. Hortik ikus-
ten dugu lurraldetasuna lantze-
ko egun aproposa dela, eta nahi-
ko genuke urteen bilakaerarekin
mendi martxa arrunt bat izate-
tik euskal lurraldetasunaren
mendi martxa, lurraldetasuna-
ren egun moduko bat, izatera
pasatzea ekimena».

Hiru zutabe abiatuko dira
bihar Irañeta, Unanu eta Ollotik
1.236 metroko altueran kokatuta
dagoen helmugara. Ez da tonto-
rrik, beraz, ez eta eliteko mendi-
zalea izan beharrik ere Euskal
Herriko erdiguneraino iristeko.
Mendi martxa herritarra izatea
asmo dute antolatzaileek, bi or-
du inguruko bidea egitea edo-
norentzat lorgarria delakoan.
Landak azaldu du erdiguneko
mugarrian ekitaldi bat egiteko
asmoa dutela, mendizalaren ba-
ten eta Independentistak sareko
kideren baten hitz hartzeekin



osatuko dutena. Itzulera joane-ko bide beretik egingo dute, hiru zutabetan banatuta hori ere, atzera abiapunturaino. Ondoren, nahi dutenak eta apuntatu direnak –dagoeneko itxita dago horretarako aukera–, autoa hartu eta Irurtzunera bidean jarriko dira, bertan egingo baitute bazkaria.

Aipatu bezala, Euskal Herriko erdigunera bihar egingo duten martxa urteroko zita bihurtu nahi lukete antolatzaileek. Horretarako, martxa egin ostean

Euskal Herriko mendi tontorrak aldarrikapenen lekuko izan direla diote antolatzaileek, eta debekatua zegoen garaietan ikurrinaren erakusleio izan zirela azpimarratu dute

«Erabat urbanoa den bizimoduan sartuta gauden garaiotan, mendian gaudenean jabetzen gara lurraren garrantziaz eta lurrarekiko dugun harremanaz»




egingo duten balorazio batzarreran adostu beharko duten lehenengotariko kontu bat izango da datorren urteko ekimenaren data. Landaren hitzetan, garrantzitsua izango da urriko bigarren igandeko data hori mantentzea, Euskal Herriko mendi taldeek euren agendan txerta dezaten. Jakitun dira mendi taldeek urte hasierarekin batera osatzen dutela euren egutegia, horregatik, datorren urteko data zehaztu bezain pronto emango zaie horren berri Euskal Herriko mendi talde guztiei.

BORROKA IDEOLOGIKOAREN EREMUAN

Osterantzean, borroka ideologikoaren eremuan eragiten jarraitzen du Independentistak sareak, independentziaren gaia agenda politikoan txertatzen ahaleginduz. Azken denbora honetan Eskozia eta Kataluniako prozesuek jarri dute mahai gainean independentziaren gaia, eta ahalegindu dira aipatu prozesuen jarraipena egiten. Eskoziako kasuan, adibidez, liburu bat atera zuten –“Eskoziak Independentziara bidaia XXI. mendeko Europar”–, eta Kataluniari dagokionez begirale paperetik elkartasun eta konplizitate papera hartzeko saltoa egin dute, Diada egunetan presente egonez, adibidez.

Aldiz, bi prozesuetatik ahalegindu dira irakaspenak ateratzen, distantziak ematen duen aukera hori baliatu eta hango eta hemengo egoeren arteko kontrasteak egiten. Ateratzen duten ondorio nagusia da Eskoziako eta Kataluniako prozesu independentistek Euskal Herriko elikatu dutela, nahiz eta jakitun izan independentzia zaleek ez dutela, oraingoz, hainbestearainoko indarrik erdietsi. Aurrera begirako erronka zein den, ordea, argi dute. XXI. mendeko independentismo bat erai-ki nahi dute, Euskal Herriak XXI. mendean dituen arazoei irtenbidea emateko. Independentzia praktiko batez mintzo dira, pertsonek egunerokotasunean dituzten arazoei erantzungo dien independentziaz. Horra sarearen jarduna marraztuko duen bidea.



2011n Euskal Herriko erdigunera egin zuten mendi martxaren irudi bat. GAUR8

EUSKAL HERRIKO ERDIGUNEA: ANDIA MENDILERROAN, BERIAIN TONTORRETIK HURBIL

1.236 metroko altueran, Andia mendilerroan, Beriain mendi tontorretik nahiko hurbil, «leku izugarri ederrean»; bertan kokatzen da Euskal Herriko erdigune geografikoa. Felix Isasak finkatu zuen puntua, 2004. urtean, Euskal Herria bere osotasunean hartuta burutu zuen azterketaren emaitza gisa. Olibesario sakonune edo sarioan kokatzen da; beraz, ez da mendi tontor bat. Eta eskerrak.

“Pyrenaica” aldizkarian idatzi zuen Isasak berak Euskal Herriko erdigune geografikoa finkatzeko egin zuen lanaren berri. Bertan adierazi zuen urte luzez Aralarreko mendilerroa hartzen zela Euskal Herriaren erdigunetzat, baina gaineratzen du uste oker baten aurrean ginela, aipatu mendilerroa erdigunetik ipar-mendebalderago baitago. Aurkikuntzaren berri eman aurretik, ordea, azaltzen du hainbat ibilaldi egin zituela bertara, «guztiaren erdigunean egote horrek sortzen duena sentitzeko». Ondoren, ingurukoek bultzatuta, aurkikuntzari dimentsio publikoa ematea erabaki zuela gaineratzen du. Era berean, hainbat mendi taldek, ikastolak eta bestelako eragileek garatutako jarduna dela-eta erdigunearen kokapenaren inguruko interesa handitu eta mendi martxa eta ibilaldi ezberdinen topalekua dela azpimarratzen du.


Egin zuen ikerketa lanari dagokionez, Euskal Herriaren azalera guztia kontuan hartu eta koordenatuen batez bestekoa atera zuela argitzen du. Modu horretan, erdigune geografikoak distantzia guztien batez bestekoa eta puntu guztien oreka jasotzen duela azaltzen du. 250 metroko erradio bateko errore-eremua dauka eginiko azterketak, baina horrek ez luke azterketaren emaitza aldatuko. Horrenbestez, nahiz eta erdigune geografikoa zehazteko orduan puntu konkretu bat ezin izan duen definitu, eginiko azterketaren emaitza balekotzat jo eta onartua den eremua da Andia mendilerroan kokatu dutena.



iRRITZIA:



Dani
Fano



Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

BIOLENTZIAREN ERABILERA «ZILEGIA» I(RA)KASTEN

Bada, beste gauza askoren artean, gurasoek euren seme-alabei irakatsi nahi izaten dieten kontu bat: biolentziarik ez da erabili behar. Biolentzia txarra da, gaiztoen kontua, ia ororen gainetik ekidin behar dena. Baina, nonbait, bada bestelako biolentziarik ere, «zilegia» dena. Hiritargoaren defentsan egiten den hori omen, hiritargoaren segurtasunerako egiten den hori. Horretarako bai, horretarako kolpatu daiteke borraz, edo jaurti daitezke gomazko pilotak, edo egin daiteke tiro. Eta, antza denez, ongi ikasia dute lezioa zenbait gurasok, euren seme-alabak «zilegia» den biolentzia horren jarduna ikastera bidaltzeraino. Ikasiko zuten borraren erabilera, nabarituko gomazko piloten gogortasuna, atzemango pistola gerriaren ze aldetan eraman. E. Arruti

A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains that are blowing in the wind. To the right of the window is a brick wall. Three small, square, dark-framed windows are set into the brick wall. The overall mood is serene and slightly melancholic due to the monochromatic blue color scheme.

GAUR8

ireki gure leihoa



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Zikloa ixtear gaude. Eguzkiak bere izpirik onenak bota ditu jada, baina, hala ere, or-tuak oraindik topera egote-ko moduan daude: mota guztietako azak, azaloreak, brokoliak, porruak, eskarolak, espinaka, zerbak, borrajak, tomateak (akaso!), piper txorizeroak... Indabak ere, berri-berriak; kalabazak onenean, fruta ugari, baita fruitu lehorrak ere. Urriak izena nondik hartu zuen ez dakigu, baina jaki barietatearen-gatik ez da izango behintzat... Belarrek, al-diz, etenaldia egiten dute. Baita baratzeko landaketek ere: azarotik aurrera ezingo dugu espero landareak asko hasterik. He-mendik aurrera, gauzak ondo gordetzea da gakoa. Oro har, gordetzea diren elika-gai freskoak eguzkitik aparte kokaturiko leku lehor eta aireztatuan jarri behar dira. Kalabazak 15-17 graduren bueltan ederto daude, baita hezetasun apur batekin ere. Hotzari eutsiko ez dioten ortuariak zein fruta (kiwiak, esaterako) batzea komeni da, lehenengo izozteak iritsi aurretik.

Baratzaren maneiuari dagokionez, baz-terrak garbitu, geratzen diren landare za-harrak batu eta egurra estalpera sartzeko garaia da. Landaketak egiteaz, negutegia-ren babesean ez bada bederen, ahaztu. Es-karolak zein neguko espinakak aire librean landatzeko aukera egon badago oraindik, baina muga gainditzear gaude, urriaren lehenengo hamabostalditik au-rerra alferrik ibiliko baikara.

Negutegia izanez gero, aukerak zabal-tzen dira, hosto-laboreen tanda txikiak erein-landatu baitaitezke aldiro-aldiro: le-txuga mota ezberdinak, kukuluak, eska-ro-la, txikoria, espinaka... Urrian zehar, po-rruak ere landa daitezke negutegian, urtarrilerako prest egongo direnak. Ho-rrez gain, udazkena haziak batzeko sasoia ere bada: behar den bezala lehorte eta to-ki fresko eta lehorrean gorde, udaberritik aurrera erabiltzeko. Lurra lantzeari dago-kionez, udaberriari begira, baserritar ba-tzuek gogoko dute labore arin bat egitea, lurra zokor handitan utziz. Neguko ho-tzak enkargatuko dira zati handiak apur-tzeaz. Beste baserritar batzuek, aldiz, hu-rrengo udaberrira arte itxarotea nahiago dute lur lanekin hasteko. Baratzeari kare hi-larekin kareztatzeak garai ona da ere uda-goiena. Lurra soberan daukanak, ongarr

berderen bat erein dezake. Zereala + leka-ria (oloa + txirta, adibidez) aukera ona da. Ongarri berdeekin lurra babestu eta elika-tzen dugu, aldi berean belarrak kontrol-pean mantenduz.

FRUTADIAK ONGARRITZEKO GARAIA

Udagoiena frutadiak ongarritu eta zain-tzeko garai egokia da. Urria bukaera eta azaroa hasieratik aurrera, fruta-arbolen hosto guztiak jausi direnean, kimaketa egiteko moduan gaude. Zuhaitzak berres-kuratu ditu hostoetatik jaso zitzakeen mantenugai denak, eta, behin udako jan-tzia erantzita, bere egitura garbi ikusteko moduan gaude. Lanok ilbeheran egitea komeni da, izerdiak sustraietarantz joate-ko joera duenean. Kimaketan zaindu be-harreko beste gauzetako bat egur larregi ez kentzea da. Azken finean, pentsatu be-har dugu kentzen den egur guztia zuhai-tzak dauzkan erreserbak direla. Horrega-tik, ez da komeni urte batean egituraren heren bat baino gehiago kentzea. Fruta-dian gaixotasunen zabaltzea ekiditeko, komenigarria da zuhaitz batetik bestera guraizeak alkoholarekin garbitzea.

URRIA

Ereintzak: Ilarrak zein baba beltzak erei-ten has gaitzke, baina kontuan izanda udaberri hasierako izozte batek loraldia izorratzeko aukerak egon badaudela. Be-rakatzaren ereintza sasoia hasten da. Ba-bespean, ilarrak zein baba beltzak ere erein daitezke (hemen ez dago izotzaren beldurrik). Horiez gain, hosto-labore ez-berdinak (letxugak, eskarolak, borraja, espinaka, porrua, errukula) eta baita zenbait sustrai-labore erein daitezke (ba-ratxuria, tipula gorria eta zuria, errefau-txoa). Urrian ereindako baratxuriek ki-mu freskoak emango dituzte urtarril-otsailerako.

Landaketak: Aukeran, beti babespean. Letxuga ezberdinak, kukulua, eskarola, espinaka, borraja. Kostaldetik gertu dau-den zonaldeetan oraindik zerbak eta azak ere landa daitezke.

AZAROA

Ereintzak: Porru berria, apiril-maiatze-rako landatzeko prest egongo dena; be-rakatza, ilarra, baba beltza, tipulina.

Babespean: Letxuga ezberdinak, erruku-la, errefautxoa, espinaka, tipula gorria.

Landaketak: Babespean. Letxuga ezber-dinak, kukulua, eskarola, espinaka, tipu-lina.

ABENDUA

Ereintzak: Baratxuria, ilarra, baba bel-tza, udaberriko aza, porrua.

Babespean: Letxuga ezberdinak, espina-ka, baba beltza, ilarra, baratxuria, patata (maiatzerako etorriko dena), errefau-txoa, errukula, tipula gorria.

Landaketa: Abenduan tipula buru osoak landatzen dira, gero hazia batzeko. Tipu-lina bera ere landa daiteke aire librean.

Babespean: Tipulina, letxuga ezberdi-nak, espinaka.



Argazkiak: Haritz MAYORA


«Hego haize, 'soro' haize»

infraganti MAI EGURZA

Paper zuritik abiatuta, ametsen mundura joan-etorrian dabil Mai Egurza ilustratzailea azken denboran. Bere lehen lan garrantzitsua argitaratu berri du Zidrou gidoigilearekin elkarlanean: «El paseo de los sueños». Bada, bigarren lan bati ekin dio bikoteak segituan, aurrean aurkitzen dituzten paper zuriak koloreztatu eta bidaia berri bati ekinez.

Ametzen munduan sartu eta bertatik ateratzeko asmorik gabe dabil Mai Egurza (Irun, 1986) ilustratzailea. Bere lehenengo lan garrantzitsua argitaratu berri du, Zidrou gidoilari belgikarra-

rekin elkarlanean osatu duen “El paseo de los sueños”. «Beldur askorekin» sartu zen proiektuan, Zidrouren ospeak eta Norma argitaletxearen izenak izututa. Baina onik atera da; are gehiago, gidoilari belgikarra eta biak lan berri baten prestaketa lanetan sartuta dabilta buru-belarri.



Mai Egurza, liburuaren azala esku-artean hartuta duela.

GAUR8

Gasteizen egin zituen ilustratzaile ikasketak Egurzak, eta amaitzean Bartzelonara salto egitea erabaki zuen, bertako Joso eskolan hiru hilabetez ikasten jarraitzeko. Bada, eskoletako lau pareten artean egindako lan-saioez gain, bere kasara ere asko ikasi duela aitortzen du: «Dakidan gehiena neure kabuz ikasi dut». Ikasketak amaitu eta lan munduan sartu aurretik bere jarduna hobetzeko denbora tarte bat hartu zuen: «Joson hiru hilabete egin ostean nire kabuz ibili nintzen nire marrazkien kalitatea hobetu nahian, arinago lan egiten ahalegintzen, teknika ezberdinak probatzen, nire estiloa aurkitu nuen arte. Orduan, argitaletxeei deika hasi nintzen, eta astebeteren ondoren bi lan eskaintza nituen».

AMETSAK ETA SOMNANBULUAK

Angulemako Komiki Azokan ezagutu zuen Egurzak Zidrou, ilustratzaileak gidoilaria, duela lau zapabost urte. Joso eskolako irakasleekin bertaratu zen azokara Egurza, eta haiek Zidrourekin hitzordua zuten: «Neuk ere bileran amaitu nuen, eta hitzorduaren ostean norberaren marrazkiak elkarri erakusten hasi ginen. Zidrouri egiten nituen gauza batzuk gustatu zitzaizkion». Anguleman eginiko harremanak jarraipena izan zuen urtebetez, elkarrekin garatu asmo zuten proiektu baten inguruan hitz egiten baitzuten; gidoilariak Norma argitaletxearekin argitaratzekoa zen “El paseo de los sueños” proiektua aurkeztu zion arte. «Gidoia aspaldi egina zeukan, eta nire marrazkiez oroitu zen. Horrela hasi ginen», azaldu du.

Liburua Napoleon Cavallo (Nap) eta Linh Yu (Linh)-ren istorioan oinarritzen da. Elkar ezagutzen ez duten bi pertsonaia dira, baina eguna joan eguna etorri Linhen ohean esnatzen da Nap. Erabat ulergaitza den kontu bat da guztientzat, somnanbulua dela ohartzen diren arte. Kutsakorra den somnanbulismo mota bat da, herri erdia, gaua iristearekin batera, etxeetako teilatuetan paseoan jartzen duena. Ohea hainbeste aldiz

partekatzeak laguntasun harreman bat sortzen du bien artean eta herrian jazotzen denaren inguruan gehiago jakiteari ekiten diote.

KOMIKIA, «LOW COST» FILMA

Txikitatik izan du Egurzak marrazkigintzarako zaletasuna, ilustratzaile izatera iritsi artekoa. Gutxi izango dira ilustrazioak egitetik bizi direnak, baina berak argi zuen behin derrigorrezko ikasketak amaituta zer ikasi nahi zuen: «Ez nuen beste aukerarik ikusten. Txikitatik gustatu izan zait marraztea –jarraitu du–, nahiz eta ez nuen nire ogibidea izango zela pentsatzen. Gustura marrazten nuen, etorkizunaz asko kezkatu gabe».



Ilustrazioak: MAI EGURZA



Ohiko edertasun kanonetatik aldentzen diren marrazkiak egiteagatik ere egin da ezagun Mai Egurza. «Oso nekatuta nago beti irudi berak ikusteaz», esan du

Marrazkiak umeei soilik gustatzen zaizkien ideia irmoki gaitzesten du, eta ilustratzaileen lana goraipatu du: «Oso erraza da arratsalde oso bat marrazten igarotzea»

Betiko edertasun kanonak baztertu eta bestelako figurak sortzeagatik ere egin da ezagun Egurza: «Oso nekatuta nago beti irudi berak ikusteaz. Horiek aniztasun handiagoa izatea interesgarriagoa iruditzen zait». Zentzu horretan, emakume lodiagoak marrazten hasi zela dio, «gustuz, eta badirudi jende askori gustatu zaiola».

Baina badu kezkatzen duen kontu bat ere komikiaren inguruan. Maiz, haurren kontu gisa hartzen da marrazkigintza. Ustea dago umeak soilik direla marrazkiarekin gozatzen dutenak eta ez dela helduentzako marrazkirik existitzen. Bada, uste hori marrazkilari batentzat «arazo» izan daitekeela adierazi du Egurzak. Bere esanetan, jende askok ez luke asmatuko bere lana egiten –«nik, adibidez, kazetaritza lana egiten asmatuko ez nukeen bezala», eta gaineratu du pertsona heldu bati marrazkiak ikustea gustatu ahal zaion arren, «mespretxu» apur batekin har dezakeela, «haurren gauza dela pentsa dezakeelako».

Berak, ordea, egiten duen lana goraipatu nahi du, ordu pila bat kentzen dizkion jarduna izaki: «Oso erraza da arratsalde oso bat marrazten igarotzea, gustu handiz gainera. Baina lan zehatz bat eskatzen dizutenean ordu pila bat igaro behar izaten dira mahaitik burua altxatu ezinda, askotan beste hainbat gauza alde batera utziz, lo egitea edo lagunekin irtetea, adibidez». Gainera, salatzen du badela ohitura marrazki bat eskatu eta honen prezioa galdetuta modu askotako erantzunak ematekoa, marrazkilariaren lana erabat gu-

txietsiz. «Antza denez, argazkilaria, informatikari eta diseinatzaile grafikoaren artean gisa honetako egoerak asko gertatzen dira», adierazi du.

Gaineratu du mespretxu horren ondorioa, askotan, gaizki ordaindutako lanak egitea dela. «Eta noski, lagun asko harrituta geratzen dira marrazkilaria naitzela esaten diedanean. Askok galdetzen didate: ‘Eta horretaz bizi zara?’ Eta nire erantzuna izan ohi da: ‘Ba, juxtu-juxtu, baina bai’», azaldu du. Gaineratu du lan eskaintza pila bat jasotzen dituela, baina, oro har, ordaindu gabeko lanak izaten direla: «Ez du zentzurik, baina jendea ez da ohartzen edo ez zaio axola zenbat lan eskatzen duen ganorazko marrazki bat egiteak».

Baina bera gustura da berean, orri zuriei bizia ematen. Filmekin alderatzen du komikigintza, eta komiki bat egitea *low cost* film bat egitea bezalakoa dela dio: «Edozer kontu daiteke marrazkien bidez, pertsonaia bakar baten bidez. Pelikula batek, ordea, azpiegitura handiagoa behar du, pertsonaia gehiago...». Orri zurien aurrean jartzen jarraitzeko asmotan da Egurza, eta badu zereginik horretan segitzeko. Une honetan Zidrourekin publikatuko duen lan berri batekin dihardu, eta GAUR8ri iragarri dionez, oraingoa «oso istorio ezberdina» izango da. Ipuin antzeko zerbait izango dela gaineratu du, mundu «exotiko» batean kokatzen dena. «Eta etorkizunean? Paper zuri asko», esan du. •

E. Arruti





Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikerlaria

Datuak ere ez dira neutralak

Kazetaritza objektiboaren izenean, datuak barra-barra ematen dira, datuek gezurrik esaten ez dutelako. Datuak, baina, gezurrak gorpuzteko erabiltzen dira.

Gezurrik handiena krisialdi ekonomikoa bera da, langileak txirotzean, lan-eskubideak okertu guran dabiltzalako, enpresaburuek irabaziei eusteko.

Krisialdiaren muinean gure burua klase ertaineko kideztat jotzea dago. Etxeak eraikitzea denen onurarako zelakoan, enpresariak puztutako prezioa ordaindu genuen langileok. Zorua garestia zelakoan, prezioari eragiten zion. Orain, etxeak eraikitzeari utzi diotenean, konturatu gara prezioa puzten zuena salduko zen etxe kopurua zela, hau da, aurreikuspen hutsa. Hala ere, oraindik, euskal ekonomiak hobera egin duen neurtzeko, sinatutako hipoteka kopurua erabiltzen dute hedabideek, ezer argitzen ez badigute ere. Esaterako:

- “%1,2 hipoteka gutxiago sinatu dira uztailean EAEn” (Eitb.com, 2015/09/25).
- “Etxebizitzak erosteko hipoteka kopuruak %26,3 egin zuen gora ekainean” (Eitb.com, 2015/08/31).

Klase erdia garelakoan, premia izan dugunean, pisua erosteko esfortzua egin dugu. Esfortzu handia izan da, 2011n bertan, kontsumitzaile elkarteek jakitera eman zutelako Espainiako langileak txirotasunetik bi soldata eskasera daudela. Hau da, diru-sarrerarik ez dugun 3. hilabetean, ez daukagu bizitzeko adina dirurik. Horregatik, langabezia txirotasunerako bidea den beldurrarekin bizi gara. Langabeziaren datu ofizialen gorabeherei erreparatuta:

- “Langabezia igo egin da EAEn, eta jaitsi Nafarroan” (Eitb.com, 2015/09/02).
- “Euroguneko eta EBko langabezia egonkor mantendu da ekainean” (Eitb.com, 2015/07/31).
- “Langabezia %15,1era jaitsi da EAEn, 18.000 langabe gutxiagorekin” (Eitb.com, 2015/07/22).

Baina langabezia ulertzeko, datuak ez dira baliagarriak. Datu hutsek ez dute honakoa azaltzen:

- “Más de la mitad de los nuevos contratos en Euskadi duran un mes o menos” (El Correo, 2015/09/17).

- “Aldi baterako kontratuen eraginez, langabeziak behera egin du uztailean” (Gara, 2015/08/05).

Datuez gain, politikarien asmoei albiste-itxura ematen diete hedabideek:

“Lehendakariak langabezia erdira jaitsi nahi du 2020. urterako” (Eitb.com, 2014/03/05). Horregatik, buruzagi politikoak ez diren beste eragile sozialen ikuspuntua jasotzen dutenean, hedabideek gure errealitatea hobeto islatzen dute:

- “Hazkunde ekonomikoa ez dela ari enplegua sortzen salatu du ELak” (Berria, 2015/09/17).
- “Casi dos millones de parados en España no reciben prestación” (El Correo, 2015/09/16).
- “127.000 lagun daude pobrezian EAEn” (Argia, 2015/07/10).

Krisialdiaren aurreko urteetan, hazkunde ekonomikoaren sasoian, EAEko txirotasun-arriskuaren tasak ez zuen behera egin. “Klase ertainak” ez zuen puztutako ekonomiaren etekinik jaso. Orain, langabezian egoteko arriskuak beldurra zabaldu du. Izua onorioz, lan-eskubideak okertzea errazagoa dute. Enpresariak ikuspuntua neutraltzat hartzea, beharrezko tresna. Horrela, hedabideek bi ideia lotzen dituzte: langabezia arintzea

eta langileek gutxiago kobratzea (“Langabezia igo egin da Espainian, lan erreformaren lehen hilabetean”, Eitb.com, 2012/04/03). Era berean, jendartearen gorabeherak burtsaren erreakzioari begira azaltzen dizkigute:

- “Las bolsas reaccionan con subidas a los planes de los gobiernos contra la crisis” (El Correo, 2010/12/31).

- “La Bolsa española cae un 2% tras los comicios y la alerta griega” (El País, 2015/05/25).

Baina burtsek ez dute txarto ikusten langabeziak gora egitea, ezta langileon prekarizazioa. Alderantziz:

- “La cúpula del Ibex cobra un 10% más y los salarios caen un 5%” (El Mundo, 2015/09/07).

Prekarietateak txirotasunera garamatza. Lan-baldintzei erreparatu ezean, enpresariak gure lan-eskubideak zenbateraino okertzea onartu behar dugun aginduko digute. Langileok ez gara enpresariak. Hipoteka ordaintzen ez badugu, etxebizitza galtzen dugu, eta etorkizuneko hil arteko diru-sarrerak ere bai. Enpresa porrotera eramateak, ordea, ez du erantzukizunik, istripua balitz bezala. Gurean, beraz, gidari suizidak gidatzeko moduaz harro daude. •



Barra-barra ematen dira datuak gezurrik esaten ez dutelakoan.

THINKSTOCK

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



1908. URTEA, DONOSTIAREN GARAPENAREN OINARRI

Donostia, 1908. urtea. Jai egun itxura hartuta esnatu da Kale Nagusia; jendea dotore, galako arropak soinean, Santa Maria elizatik sartu-irtenean. 1908. urtea garrantzitsutzat hartzen da hiriaren garapenari dagokionez. Orduan sortu zen 1970. urtean saldu zuten telefonia konpainia municipala, Gipuzkoako Ozeanografia Elkartek ere orduan eman zituen bere lehen urratsak eta Niza hotelaren eraikuntza lanekin ere urte hartan hasi ziren. AEBetan gordea den irudia Charles Chusseau-Flaviens argazkilari frantsesak egin zuen, eta Pasaian, Hondarribian eta Donostian ateratako argazki sorta baten parte da.

Hastera doa

GARA
hitzjokoa



mugaritz

NOLA JOKATU DEZAKEZU?

- Astelehenetik ostegunera denbora-pasa bat argitaratuko dugu GARAKo azken orrialdean. **Egun bakoitzaren emaitza kartillan ipini,** eta kartilla osatuta duzunean kioskoan entregatu. Oso erraza da

Astero joko bat, astero sari zoragarriak zure eskura!

LORTU ZURE
KARTILLA
IGANDEA 18
GARA-REKIN

1 ASTEA

Kartilla
Urriak 18
Denbora-pasak
Urriak 19, 20, 21 eta 22

- Sariak**
- Bi pertsonentzako itsasbidaia Mediterraneoetik barrena
 - Iphone 6 edo Samsung Galaxy S6 Edge
 - Mugaritzen 2 pertsonentzako bazkari edo afari bat
 - Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean



2 ASTEA

Kartilla
Urriak 25
Denbora-pasak
Urriak 26, 27, 28 eta 29

- Sariak**
- Ipad Pro, Ipad Air 2 edo Ipad mini 4
 - Arzak 2 pertsonentzako bazkari edo afari bat
 - Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean
 - 15 XXL harpidetza



3 ASTEA

Kartilla
Azaroak 1
Denbora-pasak
Azaroak 2, 3, 4 eta 5

- Sariak**
- Bi pertsonentzako 2 hegaldi Europara
 - Kindel paperwhite eta Libbuk 2
 - Bi pertsonentzako asteburua nekazaletxe batean
 - 15 XXL harpidetza



Sariak zuzen dauden kartilla guztien artean zozketatuko dira. **Zorte on!**

